

1995ko urtarrilak 20

261. zenb.

PRESS

ARRASATE

ALONSO DORO
HERRIKO PLAZA, UDAL ETXEA
ARRASATE
0

9

**Adinez nagusi,
gogoz gazte**



ORAIN ZURE

Laguna

DIESELA



Hiruko gobernua Arrasaten

Maiatza urrun dago oraindik, hori iruditzen zait behintzat haize hotzak jota oilo azala geratzen zaidan sasoi hauetan. Baina maiatzera heldu eta... "dios, ze aguro pasatu dan!", aterako zait. Atsedebako bizitza honen eguneroko zorabioak zizti-zazta garamatza urtaroz urtarora.

Loratze garaia da maiatza, lore berri eta ederrak nonahi. Baina loreez gain, zinegotzi eta alkate berriak ere loratuko zaizkigu Udaletxeetako lorontzietan. Ea hautatu berriei ideia berriak ere loratzen zaizkien. Berritasuna eta freskotasuna gora eta behera, niri hauteskundeetara indar politiko berria aukeztearena bururatu zait, pentsatu behintzat egin dut eta batekin baino gehiagorekin komentatu ere bai: HBren eta EAren zerrenda bateratua, egitarau abertzale eta aurrerakoia eskuan. Zergatik ez?

Azkenengo bi legealdietan, herriko gaiei dagokienez biek elkar lanean jardun dute, nazio mailako ezinak, herrian "ekinez eginak" bihurtuz. Arrasaten bertan ere, euskarak eta euskal kulturak behar dute bultzada sendorik oraindik, gazte politikak sakontzerik, hirigintzak zaindartzarik... Zortzi urte hauetan gauza asko egin dira Arrasaten, baina garrantzitsuena, seguruenik, Udaletxeko kultura demokratikoa trinkotzea, hau da, talde politiko guztiei udal kudeaketaren giltza banatzea. Batzuek erabili

dute, beste batzuek ez, baina giltza guztien eskuen izan da. Ez zen hori duela bederlatzi, hamar edo hamaika urte-etako kontua.

HB eta EA, politika abertzalea eta soziala egin dezaketelako diot, aurrerakoia. EAJk galga jartzeko abilezia han-


diagoa ohi du, eremu abertzale zein sozialean. Ajuria Enearen doinuetara abiatzearen ondorioak esparru batzuetan, norbere izaera eskuintiarraren kontuak beste batzuetan.

Eta oztupoak? asko, bai herrian bertan akordioak lortzeko, are gehiago oraindik nazio mailan jarritakoak. Baina tira, akaso inguruan bizigune handirik ez dugulako, Arrasaten badugu aintzindaritzaz izpiriturik eta honetan saiorik egitea mereziko luke. Garai batean, abertzaleen artean zubiak eraiki behar zirela aipatzen zen. Legealdi hauetan, Arrasaten behintzat, eraiki dira zenbait zubi. Has gaitezen, bada, zubiok erabiltzen.

Plas!! zaplastekoak irartzartu nau, ezin zen beste modu batera izan, 1995eko urtariraren 17an gaude, eta ez 1994ko urrian, EAeko Legebiltzarrerako hauteskunde ondoan, esaterako. Hiruko gobernua, oraingoz, errealitatea da eta zamatsua gainera, maiatzean ikusiko den moduan. EA, EAJ, PSE-EE bateko udaletxean eta besteko diputazioan, edo alderantziz. Denboraren makinak, Arrasaten behintzat, zortzi urtetako bidaian iraganera eraman gaitzake.

Ez zen ametsa, posible zen, baita egungo Euskal Herrian ere (edo hurbilketa bat behintzat), baina hirukoaren grabitateak ideia irentsi du.

XABIER LETONA "ATAXI"



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfn: 77 05 65, Faxe: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfn: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopti, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketaren arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Legedordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabier Ozaeta.

**GATZAGAN,
ERDI ERDIAN...**

**ZUHAITZ
jatekxa**




**Memesa
79 42 22**



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaureritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

ARTOLA KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

MARGOAK JUANMA

Margoak, paperak,
gotelea e.a.

Agerre kalea, 5 3. ezk.
Tfnoa: 79 69 17

Ikastaroak Garraio Gidari titulua lortzeko ikastaroa

Berehala hasiko den ikastaroa

CAD Microstation V-5

1 eta 2 mailak

AUTOCAD V-12 (Windows)

1 eta 2 mailak

Zerga Gestioa PYMES -etan

- Sarrera
- Balio erantsiaren gaineko zerga (B.E.Z.)
- Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zerga (P.I.E.Z.)
- Sozietateei buruzko zerga (S.Z.)
- Beste zerga batzuk

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-EN HOMOLOGATUTAKO IKABETXEA

Araba Etorb., 3-1ª Tel.: 79 32 16 Fax: 79 06 28 Arrasate

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

Museoaren izena

Egun hauetan irekita dago "Made in Arrasate" delako erakusketa, geroago sortuko den Museo proiektuaren lehen agerpenaldia izanik. Gustora ikusi eta pozik irten dut bertatik. Baina izenak kezkatuta utzi nau.

Hain lan gogorra hartu dute arduradunek, honez gero, helburuen artean pentsatuta edukiko dute seguririk, gerora museo hori arrakastatsua eta gure inguruetatik kanpora ezaguna izatea. Horretarako, barruko edukia ganorazkoa izatetik aparte, baldintza batzuk bete beharko lituzke. Eta horien artean garrantzitsuena, bisitariak erakarriko badira, izena bera da.

Izena aukeratzeko momentuan zenbait lege merkadologiko kontuan hartzekoak dira, besteak beste, belarrietara ondo jotzea, berezia izatea, desberdintasuna adieraztea eta horrez gain esanguratsua bada, hobe.

Badira munduan museo bakar batzuk izena aitatzeaz batera, barruko edukiaz jabetzen garenak, esaterako, Louvre, El Prado edo Guggenheim; guztiak monote matikoak ez izan arren, zerbaitetan espezialistak direlarik.

Besteek, ordea, izenean erakusgaia adierazita dute argi eta garbi, hala nola, Edinburgoko "Jostailuen Museo", Bilboko "Arte Ederretako Museo", Gasteizko "Karta Jokoen Museo", Baionako "Euskal Museo" edo Azpeitiako "Trenaren Museo".

Gure herrian ekoiztutako produktuek "Made in Arrasate" inoiz eraman izan balute, agian banakaren bati ez bada ere ezaguna egingo zitzaiokeen, baina izen hori ez da sekula hemengo produktuen marka izan eta, beraz, ez du inongo proiektu-

ziorik, ez berezitasunik, ezta erakargarritasunik ere, bertakoentzat ez bada. Gure herriaz ezer ez dakien bati antzera izango dio "Made in Arrasate" edo "Made in Garagartza" edo "Made in edozein herri" ikusteak, zeren munduko edozein herrik egin lezake bere zereginei buruzko museo bat.

Zerbait antzerakoa gertatuko litzateke, nahiz eta zehatzagoa izan, "Industria museo" izena soilik jarriko balitzaio. Zergatik hori? Europako edo Ameriketako edo Asiako herri askok eta askok eraiki dezaketelako eta eraiki dutelako euren "Industria Museo", Britainia Handiko Museoak", esateko. Gurea besteen artean bat gehiago izango litzateke.

Badago, berriz, izen bat gure herria desberdindu eta bereiztu lezakeen "Zerraila Museo" edo "Zerrajería Museo", alegia. Izen honek, gainera, Mondragoeko azken bi gizaldietako industriaren abiadura azaltzen du eta, jakina, mundu guztian ez da beste zonalderik, ezta herririk ere berezitasun horregaz museo eraiki duenik. Beraz, mundu osoan "Zerraila Museo" bakarra izango litzateke.

Gaurko Mondragoeko ekonomia zerrajeríaren industria baino asko be gehiago denez, mezua osotuko litzateke "Zerraila eta Industria Museo" izena jarriko balitzaio. Izen trinkoa, gogoratzeko erraza, desberdina, berezia eta esanguratsua. Mondragoek, museo kontuetan ere, izango luke zer eskeini munduari.

Erakusgai aldetik ere zerrailaren historia luzea egin daiteke bailarako materialeak jasoaz, zeren artisauntatik elektronikara eramango gaituen modua dago, produktuak egon daudelako. Zerrailak ezezik, "Industria"ren epigrafiak ere beste

atal guztientzat (ferreteria, elektrotresnak, elektronika, altzariak,...) atek zabalik uzten ditu.

Imagina ezazue mundu guztian informatika bidez iragartzen diren "Informazioaren autopistetan" zein dotore legokeen, munduko beste museoaren artean, "Zerraila eta Industria Museo" gai honi buruzko bakarra munduan, Euskal Herriko Mondragoen kokatua.

IÑAKI AZKOAGA

Objetore zergatik ez?

Arrasatear guztioi: Manipulazio baten berri ematera datorkizue. Ez da Gobernuak Urbina-Maltzaga autopistari buruz, horri buruz zerbait badakizue eta! Eskutitz honen bitartez, orain dela egun pare bat gertatu zen istilu baten berri eman nahi dizuegu.

Gazte Bulegora (Arrasateko Udaletxearen atal bat) hurbildu ginen "Prestazio Sozialari" buruz informazioa lortzeko nahian. Baina informazio edo laguntza aurkitu beharrean intsumisioa aukera bakarra planteatu ziguten. Gazte Bulegoaren eta Udaletxearen postura ez zen batere egokia izan. Euskal Herrian "Libertad de pensamiento y expresión" deritzoguna orain dela urte asko daukagu.

Zergatik Udaletxeko langileek ez dute errespetatzen arrasatear batzuen aukera eta informazioa eskaini aukera guztiei buruz?

Guk Intsumisoak errespetatzen ditugu baina Objetore izatea aukeratu dugu eta inork ez du hau aldatzeko autoritaterik. Intsumisoek laguntza behar dute baina Objetoreek ere bai, eta Udaletxea denona denez, zergatik bizkarra eman objetoreei?

UNAI KEREJETA LOPEZ
ETA AITOR ZABALO BAYON

Jubilatuentzako ekintzetan parte hartzen duzu?



Matias Mazmela
(72 urte)

Ez eta gainera, ez naiz jubilatuen etxeetara joaten. Ez daukat horretarako ohiturarik.



Josune Txintxurreta
(62 urte)

Ez eta ohitura faltagatik, jubilatutxueetara ere gutxitan joaten naiz. Beharbada gero-gero hasiko naiz joaten.



Cipriano Irigoien
(72 urte)

Lehen bai, Santamainako egoitza zabaltzeko lanean ibili nintzen baina aspalditxoan ez dut parte hartu. Hala ere, egunero joaten naiz Toki-Argira, jokuan egitera.



Soledad Peña
(67 urte)

Santamainako jubilatutxueetara joaten naiz, batez ere kartetan jokatzera, eskulak egiteko ahalmenik ez dut eta.




Jose Mari Arzuaga
(76 urte)

Jubilatua naiz baina ez naiz jubilatutxueetara joaten. Gure koadrila beste toki batzuetan ibiltzen gara.



Ignacia Lizarralde
(60 urte)

Nik ez. Denbora gutxi daukat eta jubilatutxueetara domeketan bakarrik joaten naiz, kafetxoa hartzera.



Jose Antonio Olmo
(75 urte)

Ez dut parte hartzen eta jubilatutxueetara oso gutxitan joaten naiz. Etxean egoitea gustatzen zait.



Soledad Bolinaga
(73 urte)

Egunero Abaroara joaten naiz, kartetan egitera. Lehen eskulak ere egiten nituen Abaroan baina orain bista dela eta, ezin dut.



BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorialdea79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutzegoria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko).....77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterongo liburutegia
 Monterraon.....77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 20
 Egunez eta gauzez: Amezua. Sta. Mari-na.
Larunbata 21
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.
Igandea 22
 Egunez eta gauzez: Mozos. Bergara. 10.00ak arte: Camacho. Bergara.
Astelehena 23
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.
Asteartea 24
 Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.
Asteazkena 25
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Mujsa-kola.
Osteguna 26
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

20 OSTIRALA

ZINEA
 "Backbeat" 7etan eta 10etan.

KONTZERTUA
 "Cujo" eta "Lord Sickness" taldeekin kontzertua Gazte-txean. AGAKO taldeak antolatuta.

21 LARUNBATA

ZINEA
 "Nostradamus" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

SKI KANPAINA
 Eski kanpainaren hasiera aste-buruan. Formigalera bidaia. Prezioa 9.500 pta bazkidetzat eta 10.000 bazkide ez direnentzat; (autobusa, hotela eta erremontek bar-ne).

KONTZERTUA
 "Anestesia" eta "Storbais" taldeekin kontzertua Gazte-txean. AGAKO taldeak antolatuta


22 IGANDEA

ZINEA
 "Nostradamus" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

ERAKUSKETA AMAIERA
 "Made in Arrasate: Museo industrial sortzeko bidean" erakusketaren azken eguna.


MENDI IRTEERA
 Lizarrusti- Igaratza- Balerdi-Amezketeta. Gero sagardotegian bazkalduko dute. Irte- era goizeko 7etan Garibaitik. Besaide mendizale elkarteak antolatuta.

MENDI IRTEERA
 Igande honetan egun zoragarri pasatzeko aukera. Lizarrusti eta Amezketa- inguruneak ezagutzeko gain, sagardotegira urteko lehenengo bisita emateko parada ere izango da.



HERRIZ HERRI ARRASATEN

Loiolako Herri Irratiko Herriz Herri saioa izango dugu Arrasaten goizeko 11.15etatik 12.45etara. Udaletxeko pleno aretotik zuzenean.



ERAKUSKETA
Santamas 94 argazki lehiaketaren erakusketa urtarrilaren 22ra arte, Harresi aretoan. Egunero 6etatik 8ak arte. Larunbat eta jai egunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

MASAIA IKASTAROA
 Urtarrilaren 28-29an eta otsailaren 4 eta 5ean, masaia hasierako ikastaroa. Lasaitzeko masaia, mendebalde eta ekitaldeko masaia konbinatuak eta oineko erreflexologia ikasiko da. Irakasalea: Jose Luis Armendia. Informazio gehiagotarako dei 793576 zenbakira. Arrasateko Yoga elkarteak antolatuta

23 ASTELEHENA**ZINEA**

"Nostradamus" 7etan eta 9.30etan.

24 ASTEARTEA**ZINEA**

"Nostradamus" 7etan eta 9.30etan.

HITZALDI-BILERA

Gaia: "Persona nagusiak eta erakundéak. Zer eskaintzen duten, zer eskatzen den". Hizlariak: Elena Kortabarría, Arrasateko Udaletxe-ko Gizarte-laguntzailea eta Encarna Lazaro, Gipuzkoako Foru aldundiko Ongisate Saileko teknikaria. Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Jubilatuen etxeek antolatuta.

URTEKO ASANBLADA

Kurtze-txiki garajeetako jabeek urteko asanblada izango dute, San Andresko alkatetzan. Lehen deialdia arratsaldeko 7.30etan eta bigarrena 8etan.

25 ASTEAZKENA**MANTENTZE GIMNASIA**

Hirugarren adineko mantentze gimnasia. Asteazken eta ostiraletan 10.45etatik 11.45etara. Kiroldegiko bazkideek 1.300 pta ordaindu beharko dute, bazkide ez direnek 1.700 pta.

26 OSTEGUNA**ZINEA**

"Germinal" 7etan eta 9.30etan.

KORRIKA 9

Korrika 9.ean laguntzeko Herri batzordea antolatu behar dela eta, herriko elkarte zein erakunde guztiei jakin arazten zaie Monterron Jauregian arratsaldeko 7etan batzarra izango dela. Erdu Euskaldegia antolatuta.

UDAL EUSKALTEGIA


Urtariletik martxora arte, eskolako irakasleentzat erreziklari ikastaroa antolatu du Udal Euskaltegiak. Euskaltzaindiak irailan egindako jardunaldietan jorratu zituen gaiak aztertuko dira. Ikastaroan 6 saio jasoko dira bakoitza bi ordukoa, 12 orduko ikastaldia.

ANTZERKIA

Maskarada antzerki taldearen "Monstruo sakratuak" antzezlan. Urtarrilaren 27an, Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta, gazte-txartelarekin 500 pta.

YOGA IKASTAROA

Hasierako Yoga ikastaroa urtarrilaren 30etik martxoaren 22ra arte, astelehenero eta asteazkenero. Ordutegia: goizez 9.45etan, arratsaldean 6.30etan eta gauez 8.30etan. Klase bakoitzak 2 ordu iraungo du: ariketa fisikoak eta arnasaren-lasaiketa teknikak emango dira eta 2 klase teoriko elikadura eta filosofiari buruzkoak. Irakaslea: Jose Luis Armendia. Informazio gehiagorako 793576 zenbakira dei egin. Arrasateko yoga elkarteak antolatuta.

**IKASTAROAK**

Famili eta Gizarte Heziketarako zentruak hainbat ikastaro antolatu du. "Lanpostua bilatzeko tekniken ikastaroa"; astelehen eta asteazkenetan goizeko 9.30etatik aurrera, 40 ordu. "Emakume eta literatura"; astelehenetan arratsaldeko 6.30etan, 30 orduko ikastaroa. "Sexualitate jardunaldiak"; asteartetan 6.30etatik aurrera, 14 ordu. "Bustina: hasierako ikastaroa"; astelehenetan goizeko 9.30etan edo arratsaldeko 6.30etan, 30 ordu.

ESKULANAK

Maiatzaren bukaera arte eskulan ikastaroa, asteartero (rustikoa, bandala, estainoa, tarazea). Emalea: Mila Aki-zu. Apirila arte Reflexoterapia ikastaroa, asteazkenetan. Emalea: Jose Luis Armendia. Ikastaro biak AEDn izango dira arratsaldeko 3.30etan. EKIN emakume taldeak antolatuta.

“Klubak sei milioiko defizita dauka eta milioi bateko interesak dakartza horrek. Mondrako taldeko presidentek eskerrak eman nahi ditu jokalarri guztien laguntzarengatik, izan ere mutiko bakoitzak hilean kopuru bat ematen du garraiorako”.



“Mondra taldean defentsak falta dira eta zelai erdian taldearen jokoa apur bat gehiago definituko duen jokalariren bat behar da.

Taldeak eraso egin nahi du baina nola jokatu ere pentsatu egin behar da eta hori ahaztu egiten da askotan. Talde gaztea da, gauzak egin eta ondo pasa nahi dute, baina zelaian aritzeko orduan kontzentratuago egon behar lukete”.

Nedžad Zivojevićek, Mondrako entr.



“Eliteko kirola baino lehen dago oinarritzakoa. Gainera, kirol mota desberdinak praktikatzeko azpiegitura bermatzea izan da Arrasateko Udalaren helburu nagusia: inor ahaztu gabe, ume eta nagusiak bereziki. (...)

Gipuzkoako kiroldegirik beteranoena daukagu (1977koa) (...)

Futbol sailak ez dauka tratu berezirik, berezitua baizik. Arrasaten ere, EHko herri gehienetan bezala futbola izan da kirol nagusia urteetan zehar eta egoera horren ondorio da gaurkoa. Zentzu horretan hartzen dut, adibidez, Arrasaten urtero egiten den futbito txapelketa hain interesgarria, 700 inguru jokalariren partaidetzarekin” (...)

“Errealzaleak-ekoei eskerrak eman nahi diet Arrasateri dedikatu dioten ale honengatik eta gogoratu, herrialde honetako mugan gauden arren, Arrasate, Gipuzkoako errealitate bizi bat dela, lana bezalaxe kirola ganoraz egitea gustatzen zaiona. Itsasoa bakarrik falta dugu!”

Xabier Zubizarretak



Beharrezkoa da enpresetan ingurugiro saila antolatzea?

Batez ere beharrezkoa da enpresak konturatu direlako kontsumitzaileek ingurugiroari garrantzia ematen diotela eta gainera, konpetitzeko ere ingurugiroa erakargarria dela. Gaur egun Europan merkatu bakarra dago eta enpresek elkarren artean lehiatu nahi badute, ingurugiroa zaindu eta legedia bete behar dute. Horregatik, nahiz eta oraingoz ingurugiro saila Euskal Herriko enpresa gutxi izan, apurka-apurka gehituz doaz. Alor horretan jakina, Europako beste herrialde batzutan aurreratuago daude, baina era berean esan beharra dago, kanpoko enpresak ere hemengoak baino lehenago hasi zirela kutsatzen.



Blanca Martinez
Osasun Bizigiroko irakaslea.

Bestalde, ezinbestekoa da enpresetan pentsamolde aldaketa, hau da, ingurugiro sailak ez dira eratu behar legediak horrela esaten duelako bakarrik, beharra dagoela ikustea ere garrantzitsua da. Kontutan izan behar da gainera, enpresentzat ere epe luzera errentagarri izan daitekeela horrelako sailak antolatzea. Hori egitean, enpresa bakoitzak bere egoera aztertu behar du. Beharbada batzuetan depuragailuak jarri beharko dira eta beste batzutan nahikoa izango da produkzio metodoak aldatzea edo energia elektriko gutxiago kontsumitzea. Gauza bera gertatzen da sailen antolaketarekin ere. Enpresa batzutan, batez ere handietan, ingurugiro saila jarri beharko da baina beste batzutan nahikoa izango da lehen zeuden departamentuek arduratu hori hartzea.

Egunotan mintegian parte hartu duten hizlariak adierazi duten moduan, bizigiro osasuneko moduluan ikasten ari diren ikasleek badute non lan egin baina horrez gain, ikasleek aporta dezaketenaren inguruan ezjakintasuna dagoelako antolatu dugu mintegia.

“PAL”
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

Elektroinjekzio
Zerbitzua 
ARRASATE KONPONKETAK
Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE


MENDIRAKO
EKIPAMENDU
TEKNIKO
Denda berria ireki dugu.
Ez itsu-itsuan erosi. Eska ezazu aholkua.
Jon Lazkanok emango dizu.
HARRURIAGA, 8 BERGARA ☎ - FAX: 76 08 84

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

PRESS
ARRASATE
Harpidetzak:
77 08 15

Bihotzekoak

Joan den astebukaeran bi lagun hil ziren bihotzekoak jota tabernan zeudela. Antonio G.R. 54 urtekoa, Gesalibarko Txirrita tabernan zegoen zapatu arratsaldean, bihotzekoak eman zionean. Antonio M. 65 urteko arrasatearrak, berriz, Txoko tabernan izan zuen bihotzekoa, domeka arratsaldean.

Al Andalus

Al Andalus kultur elkarteko bazkideek batzar orokorra izan zuten domeka goizean. Urteko balantzea egiterakoan, ekonomikoki elkartearen egoera onean dagoela adierazi zuten zuzendaritza batzordekoek. Ondoren, egoitza berriaren gaiari heldu zioten; oraingo lokala txiki geratu zaienez berria erostekotan dabilta Al Andalusekoak. Lokal berria Zigarrolan dago eta 760 m² izango ditu. Egoitza berrian, ekintza gehiago egin ahal izatea espero dute bazkideek. Batzar orokorraren bukaeran, gainera, zuzendaritza batzordean izango diren partaide berrien izenak eman ziren ezagutzera. Partaide berriak honakoak izango dira: Daniel Manzanas, Ana Cabrera, Dorleta Olivenza, Jose Antonio Lage, Txema Regaño, Rafa Martin eta Luciano Alonso. Al Andalusek 409 bazkide ditu orain.



Industria eta ingurugiroa

Astlehenean hasi eta ostegunera arte, industria eta ingurugiroari buruzko mintegia izan da San Viator ikastolan. Astelehenetik ostegunera, enpresetan ingurugiro sailak zelan antolatzen diren, euskal enpresa kutsakorra ote den, delitu ekologikoa zer den eta garapen industrial eta oreka ekologikoa bat joan ote daitezkeen aztertu zuten. Ingurugiro sailean lan egiten duten adituak etorri ziren hitzaldiak ematera.

Almenetik Bosniara

Almen ikastolan zortzigarren mailan ikasten duten ikasle eta irakasleek Bosniara eramateko janaria, erropa eta eskolarako materialeak batu dute. Iparra eta hegoaren arteko arazoa eskolan landu eta gero, gabonetan hasi ziren ekimen horretarako gauzak batzen. Horretarako SOS Balkanes taldearekin harremanetan jarri ziren eta horiek Bosnian zer gauza behar den zehaztu zieten. Talde hori gainera, batutakoa Bosniara eramateaz arduratuko da eta Almenen jasotakoa batzera etorri ziren asteazkenean.



Gurutze Gorria

Deba Garaiko Gurutze Gorria, oinezko 6 istriputan, 12 trafikoko istriputan, 58 bestelakotan eta 14 zerbitzu berezitan izan da zerbitzua eskaintzen abenduan zehar.

Inaugurazioa atzeratu

Deba Garaiko UGTK bertan behera utzi zuten egoitza berria inauguratzeko ekitaldia. Ekintza hori hilaren 19an zen egitekoa, baina inaugurazioan parte hartu behar zuten estatuko idazkari nagusiak, Cándido Mendezek etorri ezina azaldu zuenez, ekitaldia atzeratzea erabaki zen. Seguruenik otsailen inauguratuko dute Garibai kaleko bulego berria.

Eguzkiren erakusketa

Maltzaga-Urbina autopistari buruzko alternatiba erakusteko, Eguzki ekologi taldeak panel informatiboak jarri zituen astebukaeran Sebero Altube plazan.

JAIOTZAK

- Ainhua Barberan Garai. Urta-rrilaren 4ean.
- Mikel Balzategi Oruna. 7an.
- Ainhua Urzelai Vicente. 7an.
- Mikel Salaberri Agirre. 7an.
- Josu Anzin Muguruza. 8an.

HILDAKOAK

- Gloria Guridi Mendizabal. 69 urte. Urta-rrilaren 6an.
- Joaquina Sarabia Aranzacis-troque. 49 urte. 6an.
- Felix Valenti Flores. 27 urte. 13an.

HAURTXOAK

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE


**“EDERTU”
ileapaindegia**

San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28



**JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFETEGIA**

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



* JUAN JOSE GOENAGA

Apaiz, gaur. Bihar?

Konprak egiten ari nintzen egunero bezala, ilunabarrean meza ematera joan aurretik.

Emakume batekin topo egin nuen kaxa aurrean. Begiratu eta irripar batekin honela esan zidan: "Nork esan apaizak berak, jateko konprak egiten ibili behar zuenik. Nola aldatu diren garaiak". Emakumea hau apaiz baten, orain hilik dagoen apaiz baten etxe-koandretza egiten ibilia zen.

Gertakizun bat da, baina baliteke zenbaitentzat "sintomatikoa" izatea. Nerekiko hala dela pentsatzen dut. Baina bada besterik.

Apaizetako bokazioen historia luzea da. Zergatik lehenago hainbeste apaiz eta orain hain gutxi? Eta eskasiak ez du ematen behin-behingo denik, tententzia dela ematen du.

Bada, bestalde, historiari begiratu gabe, ondorenak ateratzen ausartzen den jenderik: "Ez dago federik, eta giro horretan nola sortu apaizak?"

Bada beste puntatik begiraruta, honelatsu pentsatzen duenik: "Lehenago apaizak ondo bizi ziren, eta asko sortzen ziren. Orain eskaxago omen dabilta eta ez da inor 'apuntatzen'".

Oraindik ere bada beste

arrazoirik: "Haur asko zen lekuan, denetarako zegoen, baina apaiz izateko ere, maiorzkoa ez bazen".

Eta azkenik, azkar horietako bat, honela dioenik ere bada: "Hemendik urte gutxira Elizak berea egina du, apaizak ez izateak Elizaren azkena dakar berarekin gure Euskal Herrian".

Arrazonamendu horiek nonahi entzun ahal ditugu gure jendearen artean, eta ustekabeko tokietan ginera. Nahikoa izan ohi da norbaitek gaia ateratzea, edonor jakitun sentitzen lehenagoko, oraingo eta geroako iruzkiak.

•••••

"Aktibitate fisikoaren helburua gustora aritzea, gozagarri izatea da eta ez aspergarri eta gogorra."

borobilak egiteko.

Nik ez dut esango egiten diren afirmazio horietan ez dagoenik egia piskarik. Baina ez zait iruditzen "arazoa" bere neurrian eta bere tokian jartzen dutenik.

Ni, neu, afirmazio hauek egitera ausartuko nitzateke:

— Elizak, baita Euskal Herrian ere, behar dituen apaizak izango ditu gerora ere. Aldea eta koxka "behar dituen" hitz horiek zer esan nahi duten jakitean dago. "Asko" edo "gutxi" oso erlatiboak dira arazo honetan.

— Apaizaren "figura" eta bere egitekoa izugarri aldatu da Elizaren historian zehar. Normala denez, aldatzen joango da gerora ere. Badaiteke guk ezagutu dugun eta oraindik ezagutzen dugun "apaiz-figura" hori ez izatea gero-koa. Hamaseigarren gizalditik honakoa da. Geroa uste dugun baino irekiagoa da.

— Kristauek serio samar hartzen badute, badugu gure egitekoa, sortuko dira Espirituaren indarrez, Kristau Komunitateetan "Artzain" eginkizuna edukiko dutenak. Horretarako eliz historia bera da testigu eta lekuko. Azken batean apaizaren muina artzain onaren iruzki izatea da kristautentzat.

Hauen dira nire oinarritzko esperantzak (ez ametsak), historia testigu dela. Apaizen eskasia eta urritasunak kezkatzen nau, baina ez gehiegi. Hori dela oso erlatiboa delako.

Hori horrela izanik, eta aurrera bidea egin behar dugunez, Elizaren egitekorik nagusia eta inportanteena kristau komunitateak sendotzea da eta ebanjelioa piska bat bizitzen saiatzea. Geroak emango du berea, lehenago eman zuen bezala, Jainkoa lagun dugularik eta gu loak hartzen ez bagaitu.

APAIZA

USTEAK USTE

EUSKARAZ? BARKATU BAINA...

Ez nion esaldia bukatzen utzi. Eman zidan bezala, erdera hutsean zetorren horria bueltatu nion...

Orain aste batzuk, Arrasateko Amaia antzokian eta Arrasate Musikalek antolatutako kontzertu batean, erakunde honetako partaide batzuk egun hartako egitaraua banatzen ari ziren, eta nire "onetik ateratze honek" parre algarak sortu zituen, une bertan frogatu nuen legez, eskilarak igotzerakoan burua berriz bertara bueltatu nuenean... Gero esan dadatenez, komentario bat baino gehiago egon dira, baina ni hurrengo joan nintzen kontzertuan ere (1-15) hitz bat ere ez euskaraz. Ez dakit zertarako hasarretu eta harritzen naizen, hure herriko Erakunde Musikal honek euskararekiko beti erakutsi duen jarrera jakinda. Bat ere inportantziarik eman izan balio, bat ere "berea" izan balu gure hizkuntza, ez zukeen hain ospetsutzat edukiko, euskaraz ezer eskatzen zaiola aditzerakoan, adrenalina mailak bere "ona" etetzen dion Clausen jauna (galdetu bestela Estepan Plazaolari...). Musika Handiaren europeismoan gure hizkuntza "txiki" honek ez ote du lekurik?

NEKANE SAN MIGUEL

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Xxx

Viteriko aparkalekua urbanizatu nahi da

Udaletxeak, Viteriko aparkalekuan etxebizitza bat eraiki eta lorategiak egiten has-teko asmoa du uztailez geroztik, baina lur-zoru horren jabetza dela eta gauzak ez direnez hasiera batetan uste bezain erraz joan, asmoa atzeratu behar izan du.

Joan den urteko uztailean, Viteriko aparkalekuan egin asmo zituenen berri eman zien Udaletxeak Hotel Arrasateko ugazabei. Azken horiek hala ere, aparkalekuaren jabetzaren gaineko dudamudak zituztenez eta etxea eraikitzearen aurka daudenez, euren desadostasuna azaldu eta orubearen jabetza argitzeko pausuak ematen hasi ziren. Hoteleko bi ugazabek ikertu dutenaren arabera, itxura denez Viteri Fundazioarena da lorzoru hori eta ez Arrasateko Udalarena.

1902. urte inguruan, egun autoak aparkatzen diren tokiko orubea erosi eta eskolak eraiki zituen Pedro Viteri arrasatearrak. Eskola horiek 1968an bota zituzten baina Viterik, jabetza horren inguruko testamentua idatzita utzi zuen eta bertan zehazten denez, bere izena daraman fundazioaren esku utzi zuen bere jabetzakoa zena. Horrez gain, Fundazioaren ardura eraman beharko luketen patronu batzuen izendapena ere egin

zuen eta horren arabera, Diputazioko Aldun Nagusia da besteak beste, patronatoko zuzendarietarikoa bat. Arrazoi horregatik, zenbait arrasatearrek idatzi bat bidali zioten Eli Galdosi, arazoak jakinaren gainean jartzeko eta euren desadostasuna azaltzeko. Lagun horien iritziz, ez da zilegi arrasatearren ongizaterako utzi zen tokian, interes pribatukoak diren etxebizitzak egitea. Horregatik, zerbait egitekotan herriaren onerako izango den zerbait egitea kontutan izatea eskatu diote Aldun Nagusiari.

Udaletxetik adierazi ditugutenez, berriz, gaia ikertzen eta orubeak erregulatzeko gestioak egiten ari dira baina itxura denez, etxebizitza egiteko asmoa ez da aldatu. Aurkeztu berri duten egitamu orokorrean ere etxebizitza egin eta ingurua txukuntzeko asmoa jasotzen da.

Pedro Viteri 1833an jaio eta 1908an hil zen. Ikaslea zela Baionara joan zen ikasketak egitera. Diruduna zenez, diru gehiena eskolak egiteko eta irakaskuntzarako eman zituen. Viteri Fundazioko lehen eskolak Arrasaten altxatu ziren baina ostean Hondarribia, Errenteria, Irun, Donostia, Urnieta eta Aretxabaletan ere eraiki ziren.

Biztanleria jeitsi

Azken urtetako joerari jarraituz, herriko biztanleri kopurua jeitsiaz doa. Iaz 270 biztanle galdu zituen Arrasatek eta behin behineko datuen arabera, gaur egun azken urtetan izan den biztanleri kopuru txikiena du: 24.787. Datu horiek legezko biztanleriari dagozkionak dira, hau da, padroian izena eman dutenak zenbatzen dira.

Aretxabaletan ere behera egin du bizilagun kopuruak, iaz baino 40 atxabaltar gutxiago dira kopuru orokorrean eta egun 6.106 lagun bizi dira. Eskoriatzan, berriz, iaz baino 46 lagun gehiago bizi dira, 92an Eskoriatzara etorri ziren 21 bosniarrak herrian enpadronatzeak eta azken bi urtetan etxe berriak egiteak, eragin handia izan dute eta.


Udal hilerria

Udal hilerriko nitxoan hilerria dela eta arazoak sortu direnez, Udaletxeak beregain hartu nahi du gaineko hilerria jartzearen ardura. Nitxo bakoitzean lau gorpu sartzen dira eta hilerria nork jarri behar zuen zehaztu barik zegoelako egin nahi da aldaketa hori. Horrek jakina, nitxoan garestitzea ekarriko du eta bide batez, ordenantza fiskalen aldaketa ere bai. Horregatik, hurrengo udal plenoak eman beharko du horren gaineko erabakia.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretako fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



LORATEGI "BAR"

Iturriotz, 7 ARRASATE
Tfnoa: 79 04 67

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07



Otsailaren bukaera alderako aurrekontuak onartu nahi dira.

Udal aurrekontuetan 40 milioi gutxiago jasoko dira Diputaziotik

Aurten ere, aurrekontuetarako diru gutxiago jasoko du Arrasateko Udalak Diputaziotik. Dagoeneko Foru Aldundiak nahiko aurreratua du aurrekontuen idazketa eta horren arabera, iaz baino 40 milioi gutxiago helduko dira herrira. Ino Galparsoreren, hazienda batzordeburuaren ustez, murrizketa nahiko handia izan da, Diputaziotik jasotzen den kopurua diru-iturri garrantzitsuena dela kontutan izanik.

Udaletxean ere aurtengo aurrekontuen idazketa nahiko aurreratua doala esan daiteke. Hasiera batean joan den hilabete bukararako aurrekontuak onartzea aurrikusi bazen

ere, azkenean otsaila bukaera aldean egingo den udal plenoan emango zaio onarpena. Oraingoan, aurrekontuak finkatzen ari dira batzordeak baina oraindik inork ez du planteamendu osoa aurkeztu. Nahiz eta 95eko aurrekontuak orain dagoen udabatzak onartu, aurrekontua dagoen bezala uzteko edo hala erabakiz gero aldatzeko aukera izango du udaberrian eratu den udalbatza berriak.

Bestalde, horretarako kompetentziarik baduen, urtarrilaren hasieran egin zen gobernu bilerak batzorde bakoitzaren eskaria aztertu eta 94ko aurrekontuak luzatu egin zituen.

Euskadiko Kutxak mozkinak handitu

Euskadiko Kutxak %17'3 handitu ditu irabaziak 1994ko ekitaldian, aurreko urteko emaitzekin konparatuz. Zergak ordaindu ondoren, 9.643 milioi pezetakoak izan dira mozkinak finantza erakundeko iturriek jakinarazi dutenez.

Arrakasta berezia izan duten jardueren artean, epe jakinerako deposituen eredu berriak eta 55 urtetik gorakoei bideratutako Super 55 Libreta berriaren merkaturatzea aipatu dituzte finantza erakunde arduradunek.

Mailegu, kreditu eta efektu karterari dagokionez, %12'2ko hazkundera izan dute joan den urtean, hau da, 34.800 milioi pezetakoa. Horien artean, etxebizitza erosteko mailegu hipotekarioen hedapenak izan du eragina. Merkataritza jardueraren erritmoa bizia izan denez, zergen aurretiko irabaziak 10 mila milioitik gora jarri ditu, kopuru hori beste aurrezki kutxa eta banketxeek lortutako emaitzen gainetik dago.

Jovi

PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex.
Neurritako felpudoak.
Pertsiana biribilkagarriak.
Ehunezko hormatakoak. Kortxoak.
Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

FIRST CERTIFICATE OF CAMBRIDGE

- LARUBATETAN KLASEAK
- ORAINDIK DENBORAZ ZABILTZA
- ZATOZ, EMAN IZENA ORAIN

First Certificate - First Certificate - First Certificate - First Certificate - First Certificate

Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan - Larunbatetan

9.30etatik 12.30etara - 9.30etatik 12.30etara - 9.30etatik 12.30etara

Araba Etorb., 4
ARRASATE

Tfnoak: 79 01 32
79 65 54

Erantzun ona parrokiarako diru-eskaerak

Urtarrilaren hasiera arte, herriko 1.432 lagun edo familiek erantzun diote San Juan Bataiatzailea berritzeko batzordeak egindako diru-eskaerari. Arrasatear batzuk hileroko edo urteroko maiztasunez kuota ordaintzea erabaki dute. Horiek aporatatuko duten kopuruaz 29.706.400 pta batuko dira. Beste batzuk, berriz, dirua eman dute (horiek emandakoaz 19.382.182 pta batu dira urte guztian zehar). Horrez gain, elizak emandako 13.830.740 pta gehitu behar direnez, ekarpen herritarraren atalalean guztira ia 63 milioi lortu direla esan beharra dago. Batzordearen ustez, diru-eskaerak erantzun ona izan du herrian.

Era berean, erakundetatik jasotako laguntza ere eskertu nahi izan dute batzordekoek. Parrokia berritzeko proiektua hasi zenetik orain arte Arrasateko Udalak 28 milioi eman ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiak 30 milioi eta ekarpen herritarraren bidez 33.212.922 pta jaso dira (lehen esan bezala, elizak 13.830.740 pta eman ditu eta donatiboen bidez 19.382.182 pta batu dira). Horrenbestez, orain arte 91 milioi jaso dira parrokia berritzeko eta dagoeneko 103 milioiko gastua egin da.



1.432 lagun edo familiek erantzun diote diru-eskaerari.

Ekarpen herritarraren bidez 140 milioi batzea aurrikusi zenez, aurrerantzean ere diru sarrerak bilatzeko ahaleginean jarraitzeko asmoa dute batzordekoek eta herrian ezezik, kanpoan bizi diren arrasatearrena ere zuzentzeko asmoa dute. Horrez gain, aurrezki kutxatan parrokiarako dirua sartzeko aukera dagoela gogoratu nahi izan dute.

Semaforoak

Arrasateko Udalak, zarata ateratzen duten elementoak jarriko ditu herriko lau semaforotan. Eskaria itsu baten amak egin zuen, Pablo Uranga kaletik Arrasate Musikaleraingo dagoen bidean trafiko ugari izaten dela eta.

Zarata ateratzen duten elementoak Garibai etorbideko bi semaforotan eta Maisu Arano eta Otalora Lizentziatuko beste bitan jarriko dira. 188.000 ptako kostua izango du elementu horiek jartzeak. Zarata sistemak Sainko Trafico enpresak jarriko ditu.

Lorategiak berritu

Hainbat kaletako lorategiak berritzea onartu zen asteleheneko gobernu batzordean. Santamaina kalekoak berritzeko 1.565.000 pta gastatuko dira, Santa Teresa kalekoetan 2.430.000 pta eta Don Estebe Portuko kalekoak konpontzeko 820.584 pta.

Lan horiek Abadiñoako Parques y Jardines enpresari adjudikatu zitzaizkion.

San Martin Osasundegia

**DERMATOLOGIA
UNITATEA**

Garciandia Doktorea

**PATOLOGIA DIGESTIBOEN
UNITATEA**

Otazua Doktorea

**OBSTETRIZIA ETA
GINEKOLOGIA UNITATEA**
Serrano Doktorea

**PSIKOLOGIA
UNITATEA**
J.R. Fernandez

ZIRUGIA UNITATEA
Alberro Doktorea

Ramon María Lili, 2

BERGARA

Tfnoa: 76 59 39/72

Faxa: 76 25 72



Gipuzkoako zikloturistak Agi-nagako sagardotegian elkartu ziren, afari gozoa dastatzeko eta 94ko "Challenge-ko" sariak banatzeko. Arrasaten 5 zikloturista izan dira finalista eta joan zen ostiralean zegokien saria jaso zuten. Goian: **Javier Castillo, Jose Luis Ugido** eta **Bernardo Aranzabal**. Behean: **Jose Miguel Landa** eta **Marcelino Santos**.


Josu Ugarte arrasatearra eta **Ana Jauregi** aramaioarra Loiolako Olatz ermitan ezkondu ziren abenduaren 10ean. Bazkaria Loiolako "Kiruri" jatetxean izan zuten. Ezkon-bidaian Eskozian izan dira. Zorionak!



David Arzamendik, San Juan Bataiatzailea parrokiako organistak, omenaldi hunkigarria jaso zuen igandean. Parrokiako kide eta abesbatzak eskaini zioten omenaldia, 1932tik 1993ra bitartean egindako lanarengatik. 11.30etan meza izan zuten Parrokian eta bazkaria Taberna-berri jatetxean. Zorionak, David!



Epelde



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
ARRASATE
Lizaur Arkitektoa
Tfnoa: 78 05 60
ONATI



HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57




"La Merced" ikastetxeko 7. mailako neska-mutilak Etxarri-Larraungo Arotz-Enean egon ziren astebe-

tez. Nafarroako bailarara bertako ingurune ederrak ezagutzeko eta aztertzeko asmoz joan ziren. Asko

ikasi dutela eta penaz etorri direla esan digute. Hain ondo pasa eta gero, norma-mala penaz egotea!

Arrasateko "Mendi" tabernaren "Euskadi" pintxoaren errezeta agertu zen "El Diario Vasco" egunkariak egunero ateratzen duen pintxoaren errezeta orrian. Sebastian Lasaren jatetxea da errezeta ematen agertu den lehen jatetxe arrasatearra.



IZEN PROPIOAK

● Nerea Lasagabaster

23 urteko arrasatearra izango da Udaletxeko administrari laguntzaile berria. Zuzendaritza idazkarian diplomatua dago.

● Jon Aldanondo 23 urte-

ko Ormaiztegitarra izango da ATBko arduradun berria. Irudi eta soinu ikasketak egin zituen Andoainen eta Steadycam eta erreportari grafiko masterrak Madrilen. Aurretik ATBn kamara lanak egiten zituen eta Lutxi Arregi ordezkatu du aeduradun.

● Esther Larrañaga, 34

urte, arrasatearra, izango da Ingurugiroko Kontseilari berria. Zuzenbidean lizentziatua, enpresa gestioen masterra egin zuen. Aurretik abogatu lanean ibili zen.

Atxen Aranzabal ALERGIA

ASMA, RINITISA, URTIKARIA, KONTAKTU-EZEMA

Lagun-Aro, Foru Aldundia, ASISA, PREVIASA eta IKIMESA asegurua onartzen dira

Olarte kalea, 43 ☎: 79 81 00 / 79 81 11 ARRASATE

TXOKO TABERNA

Cure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak




LASTER ZABALIK!!

HILARION TABERNA-JATETXEA KAFETEGIA


- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Urtarrilak 20an zabalduko da. Inaugurazioa (luntxa)
arratsaldeko 7etatik 9etara



Aralar enparantza, 5 Behea



WERU®
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



**Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotsik, ez berorik, ez
soinurik...**

Futbito 94-95

Txapelketa

ZALDIBAIKO

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Irati STSk azkenean porrot

13 zenbakia zorte txarrekoa dela entzun dugu behin baino gehiagotan, eta Irati STS taldearentzat 13. jardunaldia beltza izan da oso. Equis taldearen kontra neurtu zituen indarrak zapatuan eta 4 eta 1eko emaitza jaso zuen. Txapelketako lehen porrota izan da Irati-rentzat. Kontuak kontu, Iratik ezin izango du 38 puntuz, lor daitezkeen puntu gehienez, lehen fasea bukatu. Otsailaren 25era arte falta zaizkion neurketetan aldeko emaitzak lortu ezker, 36 punturekin buka dezake lehen kanporaketa. Une honetan bi talde ditugu 13 partiduetatik 12 iraba-

zita eta bakarra galduta: Irati STS C taldekoa eta Argi Ibili D taldekoa. Talde biak txapelketa bikaina egiten ari dira eta usteak bete ezker, ez dira finaletik urruti ibiliko. Ea, bada, asmatzen dugun!

A taldeko liderrak, Salenco y Konpañiak 22 puntu ditu, 11 partidu irabazi eta 2 galdu ondoren. B taldeko lehenak, Trikitik, 21 puntu ditu 10 neurketa irabazi, bakarra berdindu eta 2 galdu eta gero. Sailkatzeko gutxienez 22 puntu behar direnez, aitatutako taldeak dagoeneko 2. fasean daude esan genezake beldurrik gabe.



Felipe
Arrizabalaga
AROZTEGIA

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Futbito Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SALENCO Y KONP	13	11	0	2	64	30	22
BUKANAK	13	10	2	1	57	35	22
CERV. LEINTZ	13	10	0	3	79	26	20
ADELAIDA-HAIEZA	13	9	2	2	62	28	20
ZULOAK	13	8	4	1	59	31	20
ZOTZ	13	8	2	3	49	36	18
FOSFOROS	13	8	2	3	49	25	18
HIREA	13	7	1	5	65	37	15
KRISKIBALDA	13	7	0	6	45	50	14
ARRASATE KIROLAK	13	5	3	5	56	52	13
LOS DALTON	13	5	2	6	47	57	12
ATERPE	13	5	1	7	40	50	11
FRAGUEL GOL	13	4	2	7	40	51	10
GANBELAS	13	4	2	7	40	39	10
ASTOEN VILLA	13	4	1	8	41	68	9
INSERT COIN	13	3	2	9	52	67	7
BAYER LEINTZ	13	2	2	9	37	67	6
EZTANDA EGIN	13	1	4	8	30	74	6
ILUNA TANBERNA	13	2	1	10	31	75	5
STRAUSS	13	1	0	12	38	83	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	13	10	1	2	76	22	21
NUEVO TABERNA	13	10	1	2	62	35	21
SUM UGARTE	13	9	2	2	63	26	20
UGLYS TXINATO	13	8	3	2	75	29	19
TOTEM	13	8	3	2	66	28	19
TXEYENEX	13	8	2	3	60	33	18
PEPELUS	13	8	1	4	54	31	17
DANOK LAGUN	13	7	3	3	60	36	17
PUB PEOPLE	13	8	1	4	70	46	17
PETROLEROS	13	7	2	4	56	36	16
LOS DIMY	13	7	1	5	64	39	15
BERANGO SUKAL	13	7	1	5	51	39	15
NO COMMENT	13	3	4	6	31	73	10
ANBOTOSTE	13	3	3	7	35	43	9
LA BANDA	13	2	2	9	30	67	6
TOVARITX	13	2	1	10	19	63	5
EZKINAKO HONTZAK	13	2	1	10	26	74	5
MONTERREY TAB.	13	1	2	10	24	83	4
ARRASATE ZOO	13	1	1	11	27	81	3
ORKATZ	13	1	1	11	29	94	3

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	13	12	0	1	78	20	24
LOR. POTROAK	13	9	2	2	46	23	20
EQUUS	13	9	1	3	68	34	19
ORLANDO PIR	13	9	1	3	63	32	19
ARTZANKOS UDAL	13	9	1	3	50	32	19
AUTOS MURU	13	8	1	4	51	29	17
FRANTZISKANNER	13	7	2	4	46	40	16
KE OXTIAS	13	8	0	5	53	50	16
PERRAHOTSA	13	7	1	5	33	37	15
EXC. LETE	13	7	0	6	48	32	14
NABARROS	13	7	0	6	55	49	14
JOTA AKABAU	13	3	4	6	35	46	10
BODISCA	13	5	0	8	37	44	10
KAKA JUNIORS	13	4	2	7	28	44	10
BANEUKO	13	3	2	8	27	43	8
LEYA	13	3	1	9	47	73	7
D.K.B	13	3	0	10	27	58	6
FOTO IMAGEN	13	2	2	9	35	53	6
TXOKO TABERNA	13	2	2	9	23	67	6
POTROSORRI	13	2	0	11	23	67	4

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	13	12	0	1	82	25	24
MSM INGENIER	13	11	1	1	66	24	23
AC SURCOS	13	11	1	1	85	45	23
D. A. IRIZTU	13	8	3	2	64	41	19
MIKELOS	13	9	0	4	60	32	18
OJO AVISORE	13	8	1	4	56	41	17
LOS HEREDIA	13	8	1	4	57	46	17
LAUTHERBRUNNEN	13	7	0	6	57	44	14
SOKOAKOAK	13	6	2	5	48	49	14
BORROCK 'N ROLL	13	5	3	5	54	44	13
TRONKOTEAK	13	4	4	5	43	58	12
BZ SISTEMAS	13	5	1	7	30	42	11
ALTZA PORRU	13	5	1	7	47	46	11
KAKAJAURI	13	5	0	8	42	56	10
ANORTHOSIS	13	5	0	8	28	33	10
MOTZ	13	3	1	9	49	59	7
SUKAR	13	2	2	9	42	69	6
TEODOLITO	13	2	0	11	32	84	4
ELISABETH	13	2	0	11	26	73	4
RESAKAS	13	1	1	11	33	88	3



GRONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Aste honetan 3 partidu interesgarri gomendatuko dizkizuegu. Petroleros - Nuevo taberna, zapatuan 12etan Zaldibarren jokatu da. Petrolerosk derrigorrez irabazi beharra du. Uglys Txinato - Suministros Ugarte, zapatuan 12etan Iturripe Bn eta Equs - Orlando Piratas ordubatean Iturripe Bn. Domekan Fosforosen eta Los Daltonen arteko neurketa ere lehia bizikoa izan daiteke.

BELARRIRA

◆ **Atsedena.**

Excavaciones Lete, Autos Muru eta Elisabeth taldeek atsedena izango dute asteburu honetan, euren kontra jokatu behar zuten taldeak txapelketatik kanpo daudelako.

◆ **Epaileak.** Olentzero eta Erregeei arbitraia hobek eskatu zizkieten antolatzaileek 95erako, baina ikusitakoak ikusita, badirudi ez Olentzerok eta ez Erregeek ez dietela horrelako oparirik ekarri. Arbitraiek betikoan jarraitzen dute, txarrak izaten, jakina. Antolatzaileek taldeak zigortzea alperrikakoa dela ikusi dutenez, zigorrak kentzea erabaki dute. Baina, hori bai! lan horretan taldeko gizajoenak ez jartzea eskatu diete taldeei.

◆ **Goleadak.** Bi egon dira jardunaldi honetan. Batetik Arrasate Zoo 5 Berango Sukaldeak 13 emaitza dugu eta bestetik Potrozorri 2 Orlando Piratas 13. Biak 13 golegoak izan dira; ez dago txarto!

EMAITZAK

A Taldea

- Cerveceria Leintz 2 - Zotz 3
- Iluna Taberna 1 - Hirei 7
- Strauss 1 - Fraguel Gol 3
- Bayer Leintz 1 - Zuloak 6
- Kiskibalda 1 - Arrasate Kirolak 6
- Astoen Villa 4 - Eztanda egin arte 3
- Bukanak 3 - Adelaida Haizea 2
- Salenko y Konp 3 - Insert Coin 2
- Fosforos 2 - Ganbelas 1
- Los Dalton 6 - Aterpe 3

B Taldea

- Uglys Txinato 2 - Txeyenextx 2
- Ezkinako Hontzak 2 - Sum Ugarte 7
- Monterrey Tab. 0 - Totem 8
- Los Dimy 5 - Pub People 3
- Petroleros 4 - Trikiti 4
- Pepelus 1 - Nuevo Tab. 3
- Orkatz 7 - La Banda 5
- Anbotoste 1 - Danok Lagun 2
- No Comment 2 - Tovarixt 2
- Arrasate Zoo 5 - Berango Sukal 13

C Taldea

- Equs 4 - Irati STS 1
- Potrosorri 2 - Orlando 13
- Autos Muru 3 - Baneuko 1
- Perrahotsa 1 - Foto Imagen 0
- DKB 4 - Koka Juniors 2
- Nabarros 3 - Frantziskanner 4
- Lor Potroak 5 - Jotakabau 2
- Bodisca 0 - Txoko Taberna 1
- Leya 3 - Exc. Lete 4
- Artzankos Udal 5 - Ke Oxtias 2

D Taldea

- Motz 2 - Kakajauri 3
- Altza Porru 2 - Mikelos 4
- MSM Ingenier 5 - Resakas 4
- Borroch'n Roll 4 - Sukar 4
- D.A Iriztu 3 - Argi Ibili 8
- Sokoakoak 1 - Lauterbrunner 5
- Elisabeth 2 - AC Surcos 7
- Los Heredia 1 - Anorthosis 0
- B.Z Sistemas 1 - Ojo Avisore 6
- Teodolito 2 - Tronkoteak 6

Baster-alde

Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa *ARETXABALETA*

Tfnoa: (943) 79 24 58

Karlos Oianguren

Belarririk, kate eta eraztunen konponketa

Metalak urtu eta eraldatzea

Biteri; 13 behea Tfnoa: 79 34 26

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 21

Zaldibar

- 8.50 Anbotoste - Tovarixtx
- 10.00 Bukanak - Insert Coin
- 11.00 Perrahotsa - Koka Juniors
- 12.00 Petroleros - Nuevo taberna
- 13.00 Altza Porru - resakas
- 14.00 Bayer Leintz - Arrasate Kirolak
- 15.00 D.À Iritz - Lautherbrunnen
- 16.00 Potrosorri - Baneuko
- 17.00 No Comment - Arrasate Zoo
- 18.00 Lorategi Potroak - Txoko Taberna
- 19.00 Txeyenex - Berango

Iturripe A

- 12.00 Zotz - Aterpe
- 13.00 MSM Ingenier - Sukar
- 14.00 Monterrey Tab. - Pub People
- 15.00 Nabarros - Jotakabau
- 16.00 Astoen Villa - Adelaida Haizea
- 17.00 Pepelus - La Banda
- 18.00 Motz - Mikelos

Iturripe B

- 12.00 Uglys Txinato - Sum. Ugarte
- 13.00 Equis - Orlando Piratas
- 14.00 BZ Sistemas - Teodolito
- 15.00 DKB - Frantziskanner
- 16.00 Kriskibalda - Eztanda egin arte
- 17.00 Leya - Artzankos
- 18.00 Ezkiñako Hontzak - Totem

Igandea 22

Zaldibar

- 8.50 Iluna Taberna - Fraguel Gol
- 10.00 Borrock 'n Roll - Argi Ibili
- 11.00 Strauss - Zuloak
- 12.00 Los Herdia - Ojo Avisore
- 13.00 Cerv. Leintz - Hirei

Iturripe A

- 11.00 Los Dimy - Trikiti
- 12.00 Orkatz - Danok Lagun
- 13.00 Salenko y Kon - Ganbelas

Iturripe B

- 11.00 Sokoakoak - AC Surcos
- 12.00 Fosforos - Los Dalton
- 13.00 Kakajauri - Tronkoteak



2. faseko baldintzak onartuta

Otsaileko azken asteburuan hasiko da bigarren fasea eta lehen faseko talde bakoitzetik 8 lehenak sailkatuko dira. Zozketa bidez, 8 ekipotako lau talde berri egingo dira, A, B, C eta D moduan banatuta egongo direnak. Taldeak osatzeko orduan oinarri hauek hartuko dituzte kontutan: lehen fasetik lehen sailkatutako talde bat, lehen fasetik bigarren sailkatutako talde bat, lehen fasetik hirugarren sailkatutako talde bat, lehen fasetik laugarren sailkatutako talde bat eta lehen fasean 5.etik 8. postura sailkatutako lau talde. Talde bakoitza osatzen duten zortzi taldeetatik 4 lehenek hirugarren faserako txartela

lortuko dute. Iaz, bi lehenak bakarrik pasatzen ziren hirugarren fasea; aurten, lau pasako dira. Bigarren fasea bukatu ondoren, 3. fasea hasiko da. Fase horretan, final-laurdenetara sailkatuko dira talde bakoitza osatzen duten lau taldeetatik 2 lehenak. Final-laurdenak, final erdiak eta finalak izango ditugu. Iazko txapelketan 3. fasetik zuzenean final erdietara joaten ziren sailkatutako taldeak. Aurten final-laurdenak jokatu beharko dituzte nahi eta nahiez. 2. fasetik aurrera neurrerak guztiak Zaldibarren jokatuko dira. Dena dela, fase bakoitzeko azalpen zehatzak datozen asteetan emango dizkizuegu.

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena lehiaketan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Angela Maria Da Silva

“Munduan pertsona talde jakin bat bakarrik garatzea interesatzen da”

Bere izena Angela Maria Da Silva da eta brasildarra dugu. “Movimiento Negro Unificado de Brasil” taldeko partaidea da eta Alkairoko konferentziaren ondoren, bertan ateratako konklusioei buruz hitzegitera etorri zen gurera. Emakume honek gogor salatu zuen konferentziaren interes kapitalista.

— Zer ondorio atera zenuen Alkairoko Konferentziatik?

— Konferentzia horretan ez zeuden emakumeen taldeak errepresentatuta. Nazio Batuek antolatutako konferentzia izan zen eta Nazio Batuak ordenu mundialaren parte dira. Talde horren interesa ez zen emakumearen problematika konpontzea, baizik eta gaur egun Iparrak Hegoa esplotatzeko duen erari eustea. Interes handia dago iparrak bere aberastasun estatua eta poblazio uniformitatea mantentzeko, baina batez ere, haxe nahi da: iparrak kalitate patroien arabera sor dezala jendea.

— Birsortze politika berbera da hirugarren eta lehenengo munduko emakumeen artean?

— Bai. Birsortze teknologia berrien eta publizitate koertzitiboen bidez, ahal den eta seme-alaba gehien izatera bultzatzen dira emakumeak, bai iparrekoak eta bai hegoakoak. Hirugarren munduko herrietan, politika koertzitibo, krudel eta gogor bera egiten



da. Ezin dugu emakumearen osasunari buruz hitzegin, dokumentuko konklusio guztiak birsortze osasunari buruzkoak dira eta.

— Hirugarren munduko herriak garatzen ari direla esaten da. Noraino da hori egia?

— Ordenu mundiala inposatzen ari dena ez da garpenez prozesua, hazkunde ekonomiko era bat baizik. Garpenez hainbat kontzeptu konprenitzen du: biztanlegoaren bizitza-kalitatearen hobekuntza, hobekuntza soziala, hobekuntza ekonomikoa eta hobekuntza kulturala: Konferentzian ez da horrelakorik lortu. Gainera, pertsona emigrantei familiak biltzeko eskubidea ukatzen zaien momentutik, politika arrazista berrindartzen du. Berdintasuna, ekonomia hazkundera eta planeta honetako demografiaren hazkundera aitzakia

erabiliz, iparrak hirugarren munduko emigrante gehiago ezin jasan dezakeela justifikatzen du. Europako iparraldean bizi den emigrante portzentaia %1eko da bakarrik.

— Beraz, konferentziak kutsu arrazista izan zuen?

— Nazioarteko kapitalismoak inposatutako politikak interes desberdinak ditu, bestela, Japonetik etorritako emigranteengan presiorik zergatik ez den egiten ez dut ulertzen, edo Espainiaren kasuan, alemaniar poblazioarengan. Pertsona hauei sekula ez zaie ezer esan, ez da “inbasio” kontsideratu. Gainera, herrialde hauetako biztanlegoa zeharo zahartzen ari dela jakinik eta hirugarren munduko berriz, hazten ari dela jakinik, zergatik ez diete hirugarren munduko estatura sartzen uzten eta hemen erreproduzi daitezela? Eran-

tzuna sinplea da: Pertsona talde konkretu bat bakarrik garatzea interesatzen delako.

— Iparraldeko edo estatu aberatsetako bizilagunak konturatzen dira politika injustu horretaz?

— Jendeak ez daki zer gertatzen ari den. Arazo hauek konpondu nahi dituen kolektibo asko dago, mugimendu internazionalista asko dago eta hauen helburua aberastasun horren banaketa justua da, baina oraindik lan handi dago egiteko, asko falta da nahi duguna lortzeko. Iparrean dagoen gizarte eta politika era kontsumista hegoko herrien esplotazio eta bertako produktuen esportazioaren bidez lortzen dela konturatu behar du jendeak. Sentsibilizazioa oso garrantzitsua da baina lehenengo, heziketa sistema aldatu behar da: eskoletan hezkuntza interkulturala zabaltzeko behar da. Dibertsitate kulturala onartzen irakatsi behar zaie gazteei.

● **“Eskoletan hezkuntza inter-kulturala zabaltzeko behar da”**



Arrasaten 3.899 jubilatu daude eta auzoaren arabera, jubilatu-etxe bat edo beste dagokio bakoitzari.

Lekukoa inork hartu nahi ez duenean

Maider Egües

Erantzunkizunak bizkarrean hartzea jende gutxiri gustatzen zaion lana da, baina urte askotan erabaki ugari hartu behar izan dutenak, nekatuta daude. Gauza bera gertatzen zaie Arrasateko jubilatu-etxeetako lehendakari eta gainerako kargudunei. Euren erreleboa har dezakeen inor ez ote dagoen galdetzen diote euren buruari... edo erosotasuna ote?

Jubilatuen zama uste duguna baino astunagoa omen da. Askok ez dute 65 urte bete eta gero hartzen duten egoera berria onartu nahi izaten eta ez zaie "3. adina" edo "ju-

A
dinaren ondorioz lan egiteari uzten dion lagun askok ez ditu jubilatu-etxeak zapaldu ere egin nahi izaten

bilatua" izenpean inork etiketatzerik gustatzen. Errealitate horri ihes eginez, jubilatu-etxeetako bazkide izan arren, soziedadera joan baina jubilatu txartelak ematen dizkion abantailak aprobetxatzen ditu jubilatu askok. Adinaren ondorioz lan egiteari uzten dion lagun askok ez ditu jubilatu-etxeak zapaldu ere egin nahi izaten eta nahiago izaten dute jende gazteagoarekin nahasi ibiltzea. Hala ere, jubilatu etxeetan kargu bat edo beste gaineratzen dutenek, bestelako arazo bati egin behar izaten diote aurre: Erreleboaren arazoari.

ERRELEBOA NORK HARTU?

Arrasaten 3.899 jubilatu eta lau etxe daude. Euren auzoaren arabera etxe bat edo

beste dagokie jubilatuei; horrela, Santamaina, Musakola, Uribarri-Erguin eta erdikaldeko jubilatu-etxeetan, ia 4.000 aiton-amona daude: Abaroan 2.080, Santamainan 592, Uribarri-Erguinen 612 eta Musakolan 615. Jubilatu-etxeak bata bestearekiko guttiz independenteak dira eta euren diru-iturria udaletxeko dirulaguntza eta jubilatu bakoitzak ordaintzen duen urteroko kuota bada ere, asoziazioak direnez, euren kasa antolatu behar izaten dute dena.

Etxe bakoitzean lehendakaria, lehendakari-ordea, idazkaria, diruzaina eta 4 bokal egoten dira. Kargu hauek 5 urtean behin bakarrik berriztzen ziren lehen, baina 1993an Zestoan egindako asanbladaren ondoren, 2 urtean behin berritzea erabaki

zen. Gainera, lehendakariaren hautaketa herrikoia izaten bada ere, lehendakariak gainerako karguak hautatzeko esku-bidea izaten du orain. Erreleboa nork hartu da arazoa.

INPLIKAZIO GUTXI ETA ALFABETATU GABE UGARI

Aurreko lerroetan aipatu moduan, jubilatutuetan bazkide asko egon arren, gutxi dakite etxeetako eguneroko bizitza zer den. Abaroan, adibidez, izena emanda 2080 jubilatutuek egon arren, bi edo hiruren artean antolatzen dira ekintza guztiak eta bertara joan ezker, beti aurpegi berberak ikusten direla diote erreportai hau egin ahal izateko ARRASATE PRESSEN egon diren lagunek, Bixente Azkaratek eta Andres Indak.

Dena den, etxe bakoitzak bere arazoak izaten ditu erreleboa hartzeko orduan: Musakolako jubilatutuetan jubilatutuek erdaldun gehiago dago bertakoak baino; Uribarri-Erguingoan herritar gehiago kanpotarrak baino eta Santamainakoan, % 98a erdalduna da. Santamainako arazoa da latzena: Bixente Azkaratek 5 urte daramatza bertan lehendakari: 60-70 hamarkada bitartean kanpotar ugari etorri zen kooperatibetara lanera eta gurasoak ekarri zituzten eurekin. Etorkin asko Santamainan geratu ziren baina seme-alabek diru pixka bat egin zutenean, herrira jeitsi ziren bizi izatera eta gurasoek, Santamainan jarraitu zuten bizi izaten. Santamainako bizilagun gehienak erdaldun hutsak dira eta aipatutako hamarkadetan Arrasatera etorri zirenen guraso gehienak, alfabetatu gabeak. Beraz, zaila da lehendakariaren edo gainerako karguen erreleboa hartu nahi duen jubilatuturik aurkitzea eta Bixentek esaten duenez, borondate handia daukatela ikusten duen arren, pertsona hauek diru-kontuak

A
urpegia ematen dugunak betikoak gara. Inork ez du erreleboa hartu nahi eta gu nekatuta gaude. Hori salatu nahi dugu.”

eta gainerako erresponstabilitateak euren gain hartzeko kapaz ez direla aitortzen dutela dio. Santamainako jubilatutuetako bazkidegoaren %68tik

%75a gutxi gora behera, alfabetatu gabea da, gehienak 70 urtetik gorakoak. 3 edo 4 jubilatuturi bere lana erakusten saiatu dela dio Bixentek, baina alperrikakoa izan omen da. Andres Inda, Musakolako jubilatutuetako lehendakaria berriz, bertako bazkideen inplikazio ezaz kezka da: “Jendeak ez du papeleotan sartu nahi”.

Arazo hauei aurre egiteko, jubilatutuetan gizarte laguntzailea jartzeko eskatu zioten udalari. Laguntzaile horrek administrazio kontuak eramatea nahi izango lukete lehendakariak, horrela, urte bukaeran egin behar izaten dituzten faktura eta papeleoguztiak gainetik kendu ahal izango lituzkete eta.

JUBILATUTUETAK = TABERNAK?

Jubilatutuetak ez dira taberna hutsak. Taberna zerbitzua etxe hauek eskaintzen duten zerbitzu guztien artean

bat besterik ez da, baina hala ere, jubilatutuetan Arrasateko beste edozein taberna ordaintzen dituen zerga berberak ordaindu behar izaten ditu. Tabernan lan egiten duten kontserjeak autonomoak dira, udaletxeak jartzen ditu. Bixente Azkaratek esaten duenez, “Abaroak ordain ditzake zerga horiek, noski, bertako tabernara lagun asko joaten da eta, baina gainontzeko jubilatutuetan askoz zailagoa izaten da hain diru-kopuru altua ordaintzea. Udalak ez ei du horren gainean ezer jakin nahi. Kontuan izan jubilatutuetan kontsumitzen diren kafeak eta gainerakoak, herriko tabernetan ordaintzen direnak baino askoz prezio baxuagoak izaten direla, beraz, kontserjeak galtzen ateratzen da. Bestalde, kontserjeak udaletxearen ardurapean egoten dira, beraz, ezin dira inoren alde edo kontra jarri. Haziendak tabernen zerrendan sartzen dituzte jubilatutuetak: zergatik? Jubilatutuetan tabernetara jubilatutuek ez direnak ere sartzen direlako.”

UDALETXEAREKIN ADOS

Bixente Azkaratek eta Andres Indak diotenez, ez daude udaletxearekin hasarratuta: “Guk ez daukagu udal-etxearekiko inolako kezarik. Guk nahi izan genuelako egin ginen elkarte, beraz, gure buruaren erantzule bakarrak gara. Udaletxeak ondo betetzen ditu bere betebeharrak; asoziazioei lokala ematen die, argia eta ura pagatzen die eta mantenimendurako dirua ematen die. Egia esan, ez dakigu zer eskatu. Gertatzen dena hau da: Azkenean, arazo guztiak, beti pertsona bereberik pilatzen zaizkigula eta aurpegia eman behar dugunok, beti betikoak garela. Inork ez du erreleboa hartu nahi eta gu nekatuta gaude. Hori salatu nahi dugu.”



Jubilatutuek ez dute papeleotan sartzerik nahi.

David Scott: "Arrasate herri atsegina da eta gustora bizi naiz hemen emaztea eta semearekin"

David Lee Scott, Urbina-Maltzaga taldeko amerikarra irailetik dugu gure artean. 25 urterekin Urbina-Maltzaga taldeko bizkar hezurra da Scott hegalekoa, pisu handiko jokalaria. David ezkondua dago eta bere emazte Shannon eta seme Caleb-ekin bizi da Arrasaten.

- Zer moduz Arrasaten?

- Ondo bizi naiz, etxea kiroldegitik gertu dut eta emaztea eta semearekin pozik nago Arrasaten. Herria atsegina da oso.

- Aldaketa handia igarri zenuen Arrasatera etortzean?


- Bai, igarri nuen. Dena dela, Indianan herri txiki batean bizi nintzen, Arrasate baino handiago baina txikian, beraz, alde horretatik ez dut desberdintasunik izan; hango eguraldia hemengoaren bezain hotza da, gainera.

- Urbina-Maltzaga taldean gustora zaude?

- Bai, taldean jende jatorra dago eta guztiok ahalik eta emaitza onenak lortzeko asko egiten dugu lan. Gure helburua beti irabaztea da, batzutan lortzen dugu, beste batzutan ez, baina horrelakoa da kirola.

- Taldean egiten ari zaren lanarekin gustora zaude?

- Orain arte bai. Entrenatzailearen aginduetara nago eta agintzen didana ondo egiten saiatzen naiz. Postu desberdinetan jartzen banau ez dit axola, edozein tokitan dudan guztia ematea da helburua. Eta jakina! batzutan denak ondo irteten dit eta beste batzutan ez hain ondo-egunak daude baina hori betikoa da.



David Scott jokalaria eta bere semea Caleb.

- Liga txarto hasi zenuten eta azken asteetan gorako bidea hartu duzue. Non dago aldaketaren gakoa?

- Hasieran ez genuen elkar ezagutzen. Orain, zenbait partidatu jokatu ostean, hobeto ulertzen dugu elkar eta hori igarri egiten da jokuan. Jokalari arteko harremanak sendoagoak diren neurrian, entrenatzailearen aginduak hobeto betetzen dira.

- Zer da gehien gustatzen zaizuna Arrasaten?

- Herria oso atsegina da eta "Batzokian" janari ona ematen didate.

- Zer egiten duzu jeikitzen zarenetik oheratu arte?

•••••

"Aurrerantzean azken partiduetan bezala jokatzen badugu, EBA ligan jarraitzeko ez dugu arazorik izango"

- Egun guztiak desberdina dira. Goizeko 10-10.30ak inguruan jaikiten naiz, familiarekin arrosatzen dut; bazkal ordurarte pasiatzen edo dendaz denda ibiltzen naiz, emazteari asko gustatzen zaio eta. Batzokian bazkaldu eta arratsaldean ez dut gauza berezirik egiten entrenamendura joan arte.

- Lagun asko duzu Arrasaten?

- Dexente egin ditut azken bolada honetan; taldekoak eta taldekoak ez direnak ere baditut lagun.

- Zenbat ordu entrenatzen duzu egunero?

- 3 ordu eguneko.

- Hemengo saskibaloia eta ameriketakoa desberdina da?

- Estatu Batuetan jokalaria guztiok postu denetan jokatzen dute entrenamenduetan. Hemen, berriz, bakoitzak bere postua du; basea, hegalekoa, pibota... eta postu horietan oinarrituta egiten du lan jokalaria bakoitzak. Gainera, hemengo entrenamenduetan saskirako jaurtiketak lantzen ditugu gehien bat. Estatu Batuetako entrenamenduetan "fundamentuak", oinarritzko trebetasunak lantzen dira batez ere.

- Saskibaloiaz gain, zein kirol gustatzen zaizu?

- Golf-a.

- Zelan ikusten dituzu jarraitzaileak?

- Hasieran jende gutxi etortzen zen, emaitzak ere ez ziren onak. Orain jokua hobetu egin dugu eta jarraitzaileen erantzuna hobea da.

- Hanburgesak ala platereko jana?

- Hemen platereko jana, oso ondo jaten da eta.

- Gustokoen duzun janaria?

- Arroza Kubako erara eta kroketak.

- Saskibaloitako talde gogokoena?

- Lehen Boston taldea nuen gogokoen; orain Phoenix Suns eta Orlando Magic.

- Saskibaloiko jokalaririk onena?

- Michael Jordan.

- EBA ligako talderik onena?

- Beste ligetako taldeak ez ditut ikusi, baina gure ligan Vino de Toro da onena.

Asteburua gainean kirol taldeek

PENALTIAK

Arrasate futbitoko talde biek etxean jokatu dute asteburu honetan baina ez ohiko ordu, leku eta egunean. Lehen mailakoek Castro Urdiales taldea izango dute aurrean ostiralean, gauko 9etan Iturripen. Arrasatek 8 puntu ditu eta Castro Urdiales taldeak 15 puntu. 14. jardunaldia derrigorrez irabazi beharko dute arrasatearrek behoko zulozik irtingo badute. Arabako territorialekoek RA 55 taldearen kontra jokatu dute larunbatean arratsaldeko 5etan Musakolan. Hauek ere, irabazteko premia dute eta izango duten aurkaria garaipena lortzeko modukoa da.

Arrasate eskubaloitaldeak Ereintza taldearen kontra neurtuko ditu indarrak igandean goizko 12etan Iturripen. Arrasateko taldeak 10 neurketa jokatu ditu eta 7 punturekin sailkapeneko 6. tokian dago. Ereintza taldeak 11 neurketa jokatu eta gero, 2. tokian dago 17 punturekin. Partidua gogorra izango da oso eta arrasatearrek nahikoa lan izango dute partidua aurrera ateratzeko. Arrasateko taldearen denboraldiari gainbegirada emanenez, gaur arte 3 partidua irabazi dituzte, bakarria berdinduta eta 6 galdu.

Urbina-Maltzaga saskibaloit taldeak Coruña taldearen kontra neurtu ditu indarrak, larunbatean arratsaldeko 6.30etan Iturripen. Hauek ere, ez dute partidua samurrik, izan ere, Coruña taldea sailkapeneko 4. tokian dago eta denboraldi bikaina egiten ari da. Hala ere, Txus

Brizuelaren mutilek jokatu-tako azken norgehiagoketan maila ona erakutsi dutela ezin dugu ahaztu. Urbina Maltzaga 20 punturekin 10. tokiara betetzen du sailkapenean.

3. mailako **Mondra** taldeak Arenas taldearen kontra, Atxabalpen jokatu du, berriro ere. Sailkapenean talde biak non ditugun ikusita, irabazteko moduko neurketa

izan daiteke Mondrarentzat. Etxeko taldeak 21 puntu eta positibo bakarra du, aurkariak 12 puntu eta 6 negatibo. Neurketa arratsaldeko 4.45etan hasiko da.

Rugbyko lehen mailakoek ere etxean jokatu dute Garagartzan Bilboko Unibertsitariotako taldearen kontra. Larunbatean arratsaldeko 4etan hasiko da norgehiagoka.



Rugby-ko lehen mailakoek Garagartzan jokatu dute.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 1 Elgoibar 0
Emakumeak: Lizardi 0 Mondra 3
Jub Ohorezko Liga: Mondra 1 Elgoibar 0
Jubenilak: Antzuola 1 Mondra 2
Lehen kadeteak: Arrasate 1 Aitzgorri 3
2. Kadeteak: Arrasate 0 Almen 0
Infantilak: Tolosa 5 Arrasate 0
Hurrengoak:
 3. maila: Mondra - Arenas. Larunbata. 3.45etan. Atxabalpen
Emakumeak: Mondra - UDA. Larunbata. 3.45etan. Atxabalpen.
 2. Erregionala: Zestoa - Mondra. Larunbata. 3.45etan.
Jub Ohoerzko Liga: Euskalduna - Mondra. Igandea. 3.45etan.
Jubenilak: Arrasate - Almen. Igandea. 11.30etan. Atxabalpen.

Lehen kadeteak: Anaitasuna - Arrasate. Larunbata. 3.45etan. Atxabalpen.
2. Kadeteak: Ilinxa - Arrasate. Larunbata. 3.45etan. Atxabalpen.
Infantilak: Arrasate - Urki. Igandea. 9.30etan. atxabalpen.

Saskibaloia


EBA liga: Forum 68 Urbina Maltzaga 75
Seniorrak S-23: Urbina Maltzaga 42 Larramendi 55
Juniorrak B: Lizaso 77 Urbina Maltzaga 68
Seniorrak Emak: Urbina Maltzaga 66 Aterpe 64
Kadeteak A: Urbina Maltzaga 74 Etxadi 69
Kadetek B: Urbina Maltzaga 50 Zarautz 59
Kadeteak Emak A: Juven Alza A 95 Urbina Maltzaga 32

Kadeteak Emak B: Urbina maltzaga 31 Zarautz 30
Hurrengoak:
EBA Liga: Urbina Maltzaga - Coruña. Larunbata 6.30etan. Iturripen.
Seniorrak S-23: Urbina Maltzaga - Aralar kirolak. Larunbata. 4etan. Arrasate.
Juniorrak A: Urbina Maltzaga - Ordizia. Igandea. 11.30etan. Arrasate.
Seniorrak Emak: Orío - Urbina Maltzaga. Larunbata. 5etan. Orío.
Kadeteak A: Ordizia - Urbina Maltzaga. Larunbata 5etan. Ordizia.
Kadetek B: Akelarre - Urbina Maltzaga. Larunbata. 9etan. Donostia.
Kadeteak Emak A: Urbina Maltzaga - Erka Don Bosco. Larun-

bata. 12etan. Arrasate.
Kadeteak Emak B: Almen B - Urbina Maltzaga. Larunbata. 4etan. Eskoriatza.
Eskubaloia
Lehen territoriala: Arrasate 23 - Urola 30
Hurrengoak:
Lehen maila: Arrasate - Ereintza. Igandea. 12etan. Iturripe
Lehen territoriala: Pasaitarra - Arrasate. Igandea. 11.30etan. Pasaia
Jubenilak: Hernani - Arrasate. Igandea 10.30etan. Hernani.
Futbitoa
Lehen maila: Gazte. 8 Arrasate 0
Arabako territoriala: Urko 4 - Arrasate 1
Hurrengoak:
Lehen maila: Arrasate - Castro Urdiales. Ostirala. 9etan. Iturripen.

Arabako territoriala: Arrasate - RA 55. Larunbata. 5etan. Musakola.
Rugby-a
Lehen maila: Arrasate - Unibertsitariotako. Larunbata. 4etan. Garagartzan.
Emakumeak: Atletico bera-bera - Arrasate. Larunbata. 4etan. Donostia.
Jubenilak: Eibar - Arrasate. Larunbata. 4etan. Eibar.
Pilota
Paleta: Arrasate 20 Aramaio 35
Eskuz banaka: Ortuella 18 Arrasate 15
Hurrengoak:
Eskuz banaka: Arrasate - Aretxabaleta. Larunbata. 11etan. Iturripen.
Paleta: Amurrio - Arrasate. Larunbata.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62



San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
 Tfnoa: 79 14 33
 ARRASATE

Ikastetxea eta gurasoak elkarlanean

'Momentu honetan bizi dugun gizarte moeta dela eta... hutsune asko nabari dira; eguneroko presa, hau, bestea egin beharra, guraso askoren prestakuntza eskasa... Bizitzaren trena azkarregi doa, egunean zehar ez daukagu pentsatzeko astirik, ezta gure seme-alaben heziketari buruz erreflexio txiki bat egiteko denborarik ere.

Guztion artean, hau da, irakasle-gurasoen artean pertsona bera hezitzen ari gara, beraz, batzuk zein besteak ezin daiteek bide ezberdinetatik joan. Eskola barruan, nahiz kanpoan haurra pertsona bera da, eta bere pertsonalitatea osatzeko ardatz bakar bati jarraitu behar diogu.

Bestetik, zera nabari da, guraso eta eskolaren artean lotura estu bat gorde behar dela, irakasleak ez ezik gurasoak ere inplikaturik, beraien seme-alaben etorkizuna hauen eskuetan baitago.

Hau dela eta, beharrezko ikusten da, egunetik egunera gurasoak seme-alaben heziketa prozesuan gehiago sartzeta; baina nola?, hor dago kokka!

Gurasoen eskaera garbia da: zerbait behar dute: informazioa, laguntza, orientabidea...

Guzti hau kontutan harturik gure ikastetxean zerbait egiteko beharra sentitu genuen, Hezkuntza Proiektuko helburuetako bat Guraso Eskola bat osatzea zelarik.

Baina, zer da Guraso



Eskola? Guraso Eskola guraso talde bat da, hauen nahia, beren seme-alabek bizi behar duten gizarterako hobeto garatzen laguntzea da, eta bidez batez, gurasoen euren arteko erlazioa sendotzea, hauek hilean behin elkartzen dira zenbait gai landu eta sakontzeko asmoz.

Guraso Eskolak ere helburu batzuk baditu:

- 1.- Bere seme-alaben heziketa prozesua aurrera eramateko gurasoei laguntza eskaini.
- 2.- Familian bizi diren egoera ezberdinak direla medio komunikazioa bultzatu.
- 3.- Ekintza ezberdinak eskeiniz, gurasoen integrazioa eskolan gehiagotu.

Gaiak, gurasoen jakinmina kontutan harturik hautatzen ditugu. Gai hauek gune batzuen barruan sartzten ditugu, guneak hauek direlarik:

- 1.- Ni neu (pertsona eta bere garapena).
- 2.- Familia (familia giroa eta heziketa).
- 3.- Eskola mundua.
- 4.- Giza erlazioak.
- 5.- Giza giroa (baloreak...).


Erabiltzen dugun metodologiaren garapena:

HAUEK DIRA EDOZEIN SAIOTAN JARRAITZEN DITUGUN URRATSAK:

- Taldekide guztiak lan bera eginez gaia aurkeztu.
- Talde txikian lan eginez, gaiari buruzko galderei erantzun.
- Talde osoaren artean adostasunera heldu.
- Ondorio batzuk atera.

Gure asmoa, urtetik urtera dialdia zabaltzea da eta gurasoen formakuntza hobetzea. Aurrera jarraituko dugu lanean, bide luze eta zabal honetan, gerorako gizon emakumearen heziketa hobea izan dadin.

LA MERCED IKASTETXEKO GURASO ESKOLA



comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Z E R N A H I A G O ?

Olatz Oñederra

AEKko irakaslea



- **Eskolak zutik ala eserita?** Zutik, dinamikoagoa delako; baina eserita ere egoten naiz.
- **Euskara batua ala bizkaiera?** Eskoletan batua, baina bizkaierazko hitzak ere irakasten dizkiet.
- **Euskaltzaindiaren azken erabakiak ezagutzen dituzu?** Irakurri ditut.
- **Noiz egiten duzu ohea?** Batzutan goizean eta beste batzutan eguerdian.
- **Zer gosaltzen duzu?** Ezer ere ez.
- **Sagardotegira joateko asmorik?** Bai, koadrilarekin eta euskaltegikoekin.
- **Zeinen antza duzu, aitarena ala amarena?** Amarena esaten dute.
- **Erosi duzu zerbait beherapenetan?** Bai, eskularruak.
- **Mutilak, ilehoriak ala beltzaranak?** Beltzaranak.
- **Erraza da euskara irakastea?** Ikasle helduentzat bai, borondatea dutelako.
- **Zer egiten duzu domeka arratsaldetan?** Etxean geratzea gustatzen zait, batez ere neguan.
- **Gustatzen zaizkizu haurrak?** Bai, asko.
- **Ezkontzeko asmorik?** Oraindik ez.
- **Hiztegia asko erabiltzen duzu?** Ez.
- **Gustatzen zaizkizu txakurrak?** Bai. Gainera txabolan gainera asko ditugu.
- **“Bakalau” musika ala trikitixa?** Trikitixa.
- **Zer oparitu dizute gabonetan?** Eskuz egindako erretratua, pijama...
- **Urkulura joaten zara?** Nahi baino gutxiago.
- **Frakak ala gona?** Frakekin erosoago sentitzen naiz.
- **Eskutizik idazten duzu?** Bai, gabonetan lau edo bost bidali ditut.
- **Izan zara sekula Londonen?** Ez.
- **Asteko egunik onena?** Ostirala.
- **Baduzu gidatzeko baimena?** Bai. Autoa, berriz, gurasoena da.
- **Zergatik duzu hainbeste eraztun?** Oparitu egiten dizkidelako.

BERTSOAK

URTEURRENA

Egin zenidazuten omenen kontura
Goikolea gogotsu nigana kantura
nire aipamena zan ark zuen ardura
gordean zuan dana bota zun kanpora
zeritzan lekura ordea gertura
au-ori ta ura zizkidan lepora
ala ta guzti ere biok gustora.

Udal etxean nuan artutako zorra
morroi nintzanez nuan bete bearra
Goikolea arkitzen izutu xamarra
kalean galtzeraño manuskritu zarra
ez anka bakarra oinezko azkarra
buruz ez baldarra ba zun bere garra
azkenik ere Maxu joixok adarra.

JOSE MANUEL ARRIOLA



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

David Arzamendi

Organoaren ondoan hazitako melomanoa

David Arzamendi Enparantza 1914ko abendua-ren 15ean jaio zen. Gaur egun parrokiako organista titularra da eta 1932tik hamaika meztan jo du. Merezitako omenaldia jaso zuen joan den asteburuan baina omenaldi hori, berak adina beste batzuk ere merezi dutela dio. Maki-na bat konturen gainean egin digu berba orrialde honetan.



— Zure familian musikari asko dago. Zuri nondik dator kizu zaletasuna?

— Egia esan, gure familian ez da egun musikaririk, nire aitaren aita-jauna bakarrik: hura tanborreroa zen, baina besterik ez. Gero bai: ni, Juanito, haren alaba Beatrizek eta semea Eduardok jarriatu dituzte musikaren pausoak. Ni Parrokiako koruan tiple moduan hasi nintzen. 1926an Saturrarango seminarioan abade ikasketak egiten hasi eta han ere tiple aritu nintzen, beraz, solfeoa, hemen eta seminarioan ikasi nuen. 1928an Don Jose Izurategi etorri zen parrokiara organua jotzen eta harekin hasi nituen piano ikasketak. Don Jose bi urtetan egon zen hemen eta gero Dionisio Isasmendi etorri zen 30ean. 30etik 53ra egon zen hemen eta harekin jarraitu nituen ikasketak. Bera joan zenean, ni hasita nengoen parroki-

organua jotzen eta ordutik ibili naiz. Ondoren, Francisco Arrizabalaga izan zen parrokiako organista teklak astintzen.

— Zela gogoratzen dituzu ikasketak urte haiek?

— Oso ederrak. Dionisio oso maixu ona izan zen baina maixua izateaz aparte, izan dudana lagun handienetarikoa ere izan da; pertsona handia da, santua, bere ordezkotza oso gustora eraman nuen eta asko maite dut.

— Joan den asteburuan omenaldi hunkigarria jaso zenuen. Espero zenuen horrelakorik?

— Antzik ere ez! Omenaldiarena parrokiako koruko kantoreen ideia izan zen eta

nik esan nien, “nik ez dut horrelakorik merezi; beste batzuk nik baino gehiago merezi dute!”. Koruan ni organua jotzen hasi baino lehena-gog kantatzen hasi ziren 3 edo 4 kantore daude, beraz, harek nik baino merito handiagoa daukate; beraz, kantore horiek nik baino gehiago merezi dute omenaldia. Omenaldian bota nituen hitzetan ere esan nuen: “Koruko hainbat kantorek nik beste merezi dute omenaldia”.

— Zer moduz pasa zenuen zure omenaldian?

— Oso ederto! Larunbatean kontzertua izan zen, Giuliano Sagastak eman zuen organo kontzertua. Lehenengo zatian konpositore europarren obrak jo zituen: Max

Reger, Bach, Vierne Louis... eta gero, bigarren zatian hemengo konpositoreen piezak: Cabanilles, Aita Donostia Aita Madina, Guridi, etabar, XVII. eta XVIII. mendeko konpositoreen lanak. Parrokiako koruak ere abestu zuen eta ederto gainera. Igandean, berriz, koruak Lorenzo Perosiren Bigarren Meza Pontifikala abestu zuen eta nik oso gustoko dut abesti hori, beraz, oso pozik geratu nintzen.

— Eta zuk, izan duzu inoiz ikaslerik?

— Ez. Gauzak aldatu egin dira, eta onera gainera: Duela 60 urte inork ez zuen seminarioan musika karrerarik egiten. Orduan ateratzen ziren organistek ez zuten azterketarik pasatu behar izaten. Gauzak orain aldatu egin dira eta organua jotzen ikasi nahi duten gazteek eskoletan ikasi eta azterketa egiten dute.

— Gaur egun parrokiako organista zara. Oraindik jarraitzeko asmotan?

— 1993an parrokiako organista titularra, Francisco Arrizabalaga hil zenetik, ni naiz bertako organista titularra eta osasuna daukadan bitartean, jarraitu egingo dut. Nire musika-erantzunkizunei aurre egin ezin izango diedan momentua heltzen denean, utzi egin beharko dut, baina bitartean, gustora jarraituko dut.

•••••
“Koruko hainbat kantorek nik beste merezi dute omenaldia”

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
 Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
 ARETXABALETA

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
 ARETXABALETA



Herriko jubilatutak ekintzara bultzatu nahi dira.

Jubilatuta, baina ez gizartetik kanpo

Aste honetan hasi da Arrasateko Jubilatuen etxeek antolatutako kultur programa. ICTEren laguntza teknikoaz eta Udalaren babesean egingo dira ekintzok, martxoaren amaiera bitartean egingo direnak.

1994ko Euskadiko Plan Gerontologikoak aipatzen dituen helburuen artean, honela dio: "Nagusiek aisi-aldi uneak modu kreatibo batean bizi ditzatela, faktore aberasgarri bihurtuz norberaren garapen pertsonala areagotuz eta beraien partehartzea gizartean suspertuz".

Hitzaldi guztiak Monterronen izango dira, arratsaldeko 4.30etan.

Urtarrilak 24: "Pertsona nagusiak eta Erakundeak. Zer eskaintzen duten, zer eskatzen den". Hizlariak: Elena Kortabarria (Arrasa-

teko Udaletxeko Gizarte Laguntzailea) eta Encarna Lázaro (Gipuzkoako Diputazioko Ongizate Saileko teknikaria).

Urtarrilak 31: "Nolako da nahi dugun Jubilatuen etxea?" Arrasateko Jubilatuen Etxeen Biltzarraren ordezkariak izango dira hizlari.

Otsailak 7: "Zer da bolondresaritza?" Estibalitz Andrio, ICTEko sendagilea.

Otsailak 8: Mahaingurua: "Borondatezko lanetan esperientzia duten pertsona nagusiak". Hizlariak: Karmelo Bergaretxe (Gurutze Gorriko Lehendakaria), Pilar Arzamendi (Karitas-eko lehendakaria), Andres Inda (Harremanekoa), Francisco Alvarez (ICTEko Senior programan laguntzaile).

Otsailak 21: "Deba Garaiko

Artea eta Kultura", Turlaneko teknikaria hizlari dela.

Otsailak 22: Deba Garaiko inguruneetara bisita turistikoak.

Martxoak 7: "Musika Euskal Herrian eta Kulturaren" Juan Arzamendi (Arrasate Musikaleko zuzendari ohia).

Martxoak 14: Hitzaldi kontzertua: "Euskal Musika Tresna Tradizionalak" Lorentxo Altube, musika tresnen artisaia.

Martxoak 15: Musika ekitaldia: "Parrokiako Otxotea" eta "Bibolineko bikotea".

Martxoak 21: Hitzaldia: "Mendia topaketa bide gisa" eta "Mendiko imaginaren proiektzioa", Andoni Billar, Beasaideko kidearen eskutik.

Martxoak 22: Mendi ibilaldia.

Martxoak 29: "Antzerki Taldea".

LABURRAK

ASA taldea

Argazkilari irabazleak

Erabakita daude aurtengo Santamas Argazki lehiaketako irabazleak. Dakizuenek, ASA Argazkilari Taldeak urtero antolatzen duen lehiaketa da hau eta aurtengoan, 12 lagunek parte hartu dutela esan behar da. Partehartze eskas honen zergatia Santamasetan egin zuen eguraldi txarra izan zitekeela adierazi dute antolatzaileek.

Lehen saria, argazki multzorik onenarena, Karmelo Uribarrenek eskuratu du eta 25.000 ptako diru-saria etxeratuko du. Bigarren saria Migel Angel Arenazari egokitu zaio: argazki onenaren saria irabazi du, 20.000 ptakoa. Azkenik, 2. argazki multzo onenaren saria, Jabi Ozaetak eskuratu du. Jabik 15.000 ptakoa.

Olentzero edo Txoronpioren argazkiari ematen zaion saria, hutsik geratu da kalitatezkorik aurkeztu ez delako.

Lehiaketan parte hartu duten lagun guztien argazkiak ikusgai egongo dira urtarrilaren 22ra bitartean Harresi Aretoan.

SHOT!
grabaciones


SHOT! grabaciones S.L.
Araba Etorbidea, 3 - 2. solairua
Eskatu Pabilioia
☎: 943 - 79 37 51

ARRASATE

Gipuzkoa

EsLu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



1.963ko urriaren 12an, Mondra Ibarra zelaian.

G

ageri den hau. Sasoi hartan Eskola Politeknikoaren obrak zirela eta, Iturripeko bigarren futbol zelaia egiten ari ziren. Terrenoa ez zegoen jokatzeko moduan eta hura asentatu artean Aretxabaletako Ibarra zelaian jokatzeko zuten. Iturripeko zelai berria prest egon eta gero ere, itxoi-ten egon ziren han jokatu aurretik; bedarra ez zen hazten itxuraz, eta belarra hazten ez...! Tolosaren kontrako partidu batean estreinatu zuten azkenean.

aur egungo Mondra, "Juventud Deportiva Mondragon" zen artean. 1963a zen eta lehen ekipoa zen argazkian

Aurretik, urriaren 12 hartan, Pilarika egunez, Eibar taldea zuten aurrez-aurre Iba-

rran. Garai hartan 2. mailatik 3era jeitsi berria zen Eibar eta 1-0 irabazi zuen Mondrak.

Egun hura aprobetxatuz omenaldia egin zitzaion jokalariei erropak eta botak garbitzeaz eta masajista lanetaz arduratzen zen gizon bati. Ordurako utzita zuen lan hori Tristanek. Bere argazkia erdian zela, bi buruko dra-goien irudia jasotzen zuen kuadroa oparitu zioten partidu hasi aurretik.

Mondraren talde hartan gehienak kanpotarrak ziren orduan. Argazkian asko falta dira, baina goitik ezkerretik hasita, **Tomas Iturrikasti-**

Ilo, Beltrán de Guevara, Sanz, Lamarca, Lazkano, Okariz, Tristan (omendua), Gomez "Barullo", Bergaretxe, San Vicente "Zur-dito" eta Mateo.

Makurtuta, **Felix Gainzarain** eta **Egaña "Pitia"**. Erdiko mutikoa ezezaguna. Entrenatzailean Joxe Errasti zen orduan.

Egun hartan, partidua bukatuta bueltan etxera zetozela, Guardia Zibilak geratu egin zuen Juanito Jauregiren autobusa, jende gehiegi zaramalako. Batzuk jeitsi eta Atxabaltan geratu ei ziren txikiteoan.

UGARAN jatetxea

AMAI ANTZERKI ^{ZURE} ^{UNDOAN}



95eko 1engo hiruhilabetea **ANTZERKI PROGRAMAZIOA**

URTARRILAK 27, OSTIRALA (10.30etan)

MASKARADA **Monstruo sakratuak**




OTSAILAK 17, OSTIRALA (10.30etan)

BEDEREN 1 **Errenta**



MARTXOAK 3, OSTIRALA (10.30etan)

TANTAKA **Todas culpables**



MARTXOAK 24 eta 25, (10.30etan)

ARTESZENA **Mephisto**

SARERA: 700 pta
Gazte Txartelarekin 500 pta




GIBIZONKO
FORU-ALDUNDIA

• AIPUA •

“Hasi aurretik ondo pentsatu; baina erabakia harturik duzunean, ez zalantzatan hasi”

SALUSTIO

• JEROGLIFIKOA •



Zer ehiztatu zenuten?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						
9			10			11
12					13	
14			15			
16		17			18	
19				20		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Baimena eman. 8. Miren, AEDko lehendakaria. 9. (Ald.) Kanpo. 10. Musika-eskalako 7. nota. 11. Latinezko esaldietan erabiltzen da. 12. Akiuluaz ziztatu. 14. Sozietate Anonimoa. 15. (Ald.) Lerro. 16. (Ald.) Su eman. 18. Eguzki. 19. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. 20. Ero.

Bertikalak 1. Elkartasun. 8. Aztertu, miatu. 3. Iridioa. 4. Profetek iragarritako salbatzailea. 5. Autore. 6. Neu. 7. Bizkaiko udalerria. 11. Edifizio baten azken pisua. 13. Gizon izena. 17. (Ald.) Errepublikatuz, mina, haur hizkeran.

• HOROSKOPOA •

Aries Zure jokaera oso bitxia da. Batzutan pozik, geroago haserre...

Taurus Ene, zure garrasiak! Soprona izan beharko zinateke.

Gemini Txotxeko sasoia hasi dela eta inoiz baino alaiago zaude.

Cancer Zorte txarra izan duzu azken boladan, baina horrek gutxi iraungo du.

Leo Abenturazalea zarelako ei duzu hainbeste arazo.

Virgo Errutinan murgilduta bizi zara, baina zer egingo duzu ba?

Libra Noiz maitemindu zinen azken aldiz? Ezin gogoratu, ezta?

Scorpio Lanik gabe, dirurik ere ez... hori da bizimodua.

Sagittarius Ondotxo dakizu zure anaiaren itxulapikoa non dagoen.

Capricorn Ameriketara joatea gomendatuko dizute, baina oraingoz ez zaizu komeni.

Aquarius Oraindik turroia jaten? Aizu, nahikoa da.

Piscis Zure umea askotxo hurbiltzen da entxufetara. Kontuz ibili.


Miren Arrieta Estetika Zentruak,

Mediku espezialista baten zerbitzua eskaintzen dizu

MIKROLIPOSUKZIO ANBULATORIOA

Gorputz atal jakinetako grasa kentzeko teknikarik egokiena.

- Ordu t´erdiko saioan egiten da, kirofanotik pasa gabe.
- Anestesia lokalarekin eta atsedeen-aldiaren beharrik gabe.
- Emaitzak begibistakoak eta **BETIRAKO**.
- Ez du dietarik behar.




Lehen




Bi ordu beranduago

TRATAMENDUAK

- Mikroliposukzio ambulatorioa (zelulitia)
- Barikula eta barizeen esklerosia
- Garitxoak, talanjektasiak (Kouperose)
- Orban keloideak
- Peeling progresiboa (akne eta bestelakoen arrastoak kentzeko)
- Begizuloak eta begietako poltsak (anestesia lokalak)
- Hilos de oro (zimurrak)




Lehen



Gero

Zerkaosteta, 12 ☎ 79 00 35

“Gazte-Nahaste”: Gazteon hitza



Adi! Programa berria estreinatzen dugu ATBn. Gorka Etxabe eta Nora Isasi dira programa berri horretako aurkezle eta zuzendariak. Bi gazte horiek kazetaritza ikasten ari dira Bilbon eta gazten arazoak plazaratu nahi dituzte programa honen bidez. Astero gai desberdin bat jorratuko dute hainbat gonbidaturekin batera. Gainera, programako gai bakoitzaren gainean, inkesta egingo dute kalean herritarren iritzia ezagutzeko. “Gazte-Nahaste” hamabostean behin izango da, asteazkenetan. Badakizu, ikusentzule gazte hori: gaur egungo gazteen arazoak eta kezkek intereseko badituzu, horien berri izango duzu Gorka eta Norarekin!

22 Igandea

21.30etan
Mondragol.

23 Astelehena

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

21.30etan

Mondrasport

24 Asteartea

20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak

21.30etan

ATBketan

25 Astezkena

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

“Gazte-Nahaste” programa berria.

26 Osteguna

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Ibilixan Dabilena.

27 Ostirala

19.15etan

Marrakzi Bizidunak

19.50etan

Kukaratxa Motel

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

22.00etan

Marrakzi Bizidunak

BESTE PREZIOEKKIN EZER IKUSTEKORIK EZ



Trento
eta Siena

450 saltegi baino gehiago dituen Estatuko lehen erakunde optikoak bakarrik eskain diezazkizuke betaurreko bildumarik eksklusiboenak 2.850 pezetatik aurrera. Eta garantia guztiekin, jakina.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba.

Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

Etxebizitzak

- **"Pensión Edera" alokagai Iturriotz kalean.** Tfnoa: 79 12 07. Arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Arrasaten etxebizitza osatzeko neska behar dugu.** Hilean 9.500 pta. Tfnoa: 79 70 77. Aintzane.
- **Etxebizitza behar dut alokagai.** 50.000 pta. arte ordaintzeko prest. Tfnoa: 79 44 96.
- **Etxebizitza salgai, Uriburu kalean, 6 - 3.** Tfnoak: 79 80 66 / 77 14 14
- **Nesken etxebizitza batean logela bat alokatzen da, oso merke.** Tfnoa: 77 06 25. (Ainhoa).
- **Apartamendua salgai Erguinen.** Dei egin 79 22 12 tfnora astegunetan gauetan.
- **Nesken etxe batean logela** alokatzen da, oso merke. Tfnoa: 77 06 25. Ainhoa.
- **Etxebizitza behar dut alokatzeko Arrasaten.** Tfnoa: 79 73 05.
- **Pertsona euskalduna behar dugu etxebizitza osatzeko.** Tfnoa: 65 52 98.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.

Lana

- **Magisteritzako ikasleak klase partikularrik ematen ditu.** OHoko maila guztiak. Dei egin 79 41 37 tfnora 9,30etatik aurrera.
- **Ingelesezko klase partikularrik ematen dira.** Profesionalitatea eta esperientzia zentro akademikoan. Tfnoa: 79 28 98.
- **Neska eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Tfnoa: 79 77 94. M^a Eugenia.

- **Ileapaindegiko laguntzailea eskaintzen da** FPII eta hobekuntzarekin. Tfnoa: 79 39 15.
- **Emakumea jatetxeteetan garbiketa lanak egin eta umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 63 27. Nati.
- **Esperientziadun neska arduratsua** eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, edota pertsona nagusiak zaintzeko, tabernak edo bulegoak garbitzeko... Tfnoa: 79 76 27. Mentxu.
- **Esperientziadun neska arduratsua** eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, edota pertsona nagusiak zaintzeko, tabernak edo bulegoak garbitzeko... Tfnoa: 79 72 19. Txus.
- **Neska bat behar da** etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Lana goizez izango litzateke. Interesatuak dei egin dezala 1-4ra bitartean 79 67 07 tfnora.
- **Ingelesezko klaseak emango nituzke.** Tfnoa: 79 21 56
- **OHoko klase partikularrik emango nituzke.** Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Emakumea prest jatetxeak garbitzeko edo umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 63 27. Nati.
- **Andra euskalduna etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Andra erizain ausiliarra eta esperientziadun gerokultora** pertsona nasgusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53. Arrasate.

Salerosketak

- **Montesa COTA 335 salgai.** SS-AM matrikula-koa. Tfnoa: 78 24 90. Iñaki.
- **EXPRESS Furgoneta salgai.** 1.400eko motorra eta 75 zaldi. Matrikula SS-AD. Tfnoa: 79 95 83. Iosu.

- **Bigarren eskuko hozkailua behar dut.** Tfnoak: 94-41 11 666 edozein orduan edo 79 90 36 astelehenetik ostiralera 3.30etatik 7.30etara.
- **Garaje itxia alokagai Roneon.** Tfnoa: 79 19 64.
- **Garajea alokatu nahi nuke, Arimazurin.** Tfnoa: 79 59 68
- **Sofa-ohea saltzen dut.** Neurria: 1,20. Tfnoa: 79 41 26. Ana.
- **Garajeak alokatzen dira Ibai-ondon.** Deitu 79 82 95 tfnora (Amaia). 20.00tik aurrera.
- **Jangela edo sukalde baterako alazena bat saltzen dut.** Gaztainondoko egurrez eginda dago eta berri berria dago. Tfnoa: 79 22 85.
- **Honako gauzak saltzen ditut:** 1,35eko sofa cama; sukalderako mahai borobila eta zuria, bere aulki eta banketekin; egurrezko kutxa; zumitzezko mahai borobila. Tfnoak: 76 62 85 (Angel, goizeko 9,30etatik 11etara) eta 79 82 18 (Mari Jose, gauez).
- **Lokal komertzial baten bila gabiltza,** 200-300m²koa eta erdikaldean. Tfnoa: 79 07 84. 4etatik 8etara.
- **100 litroko FAGOR termoa** saltzen dut prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garaje itxia alokagai Roneon.** Tfnoa: 79 19 64.

Denetarik

- **Zapatu arratsaldean urrezko belarririkoa galdu zitzaidan,** Loramendi kaletik Uribe auzora bidean. Tfnoa: 79 82 28. Maribel. Arratsaldeko 7etatik aurrera.
- **Gabon egunean ezkontza eraztuna azaldu da** Ezkina tabernan, inzialekin. Harremanetarako, Jose Mari. Tfnoa: 79 61 25.
- **Zapatu goizean betaurrekoak galdu zitzaizkidan.** Montura metalikodunak. Arbolapetatik Olarte kantoira bitarteko bidean. Tfnoa: 79 17 81.

Aste Gazte

Bekak

• Udan atzerrian ingeles eta frantses hizkuntz ikastaroak egiteko bekak. Baldintzak: a) iaz beka lortu zutenak, beraz, berriztapena b) aurten bekario diren ikasleak, beraz, adkudikazio berria. Ikasketa maila hauetan dihardutenei zuzenduak: 3. BBB, LHIL... Epea: otsailak 28.

• Kanpo-Arazoetako Ministeritzak, 95-96 ikasturterako Grezian ikasketak sakontzeko zein grekera modernoa eta kultura helenikoa ikasteko uda-ikastarorako beken deialdia egin du. Epea: otsailak 10.

Lana

• Arrasateko Udalak, bi liburuzain-laguntzaile kontratatu nahi ditu urte t'erdirako. Epea: urtarrilak 25.

• Eibarko Udalak lanpostu hauek kaleratu ditu: konserje lanpostu bat, lorazain lanpostu bi eta hiru peoi. Epea: urtarrilak 30.

• Zornotzako Udalak itzul-tzaile lanpostuaren deia egin du. Epea: otsailak 15.

• Euskadiko Orkestra Sinfonikoak tronboi bakarlarri bat eta flauta bakarlarri bat behar ditu. Informazioa: 451022/466722. Epeak: otsailak 23 eta apirilak 19.

Ikastaroak

• Durangoko enplegu eta prestakuntzarako "Sartu" zentruak, "Altzarien berriztapena" ikastaroa antolatu du langabezian dauden pertsona interesatuiei zuzendua. Epea: otsailak 24.

Lehiaketak

• Eibarko Udalak, 95 Aratosten kartel lehiaketaren deia egin du. Neurriak 70 x 50. Gaia librea. Epea: urtarrilak 24.

• "Berrigara" Bergarako aldizkariak antolatutako, III. Amodiozko ezkutitzen lehiaketa. Epea: urtarrilak 26.

"Argalak ziren andra haiek eta beraien gaztetasunak aspaldi joanda zirudien; nonbait, azaleko zimurren artetik, galdutako hortzen zuloetatik ihes eginda."

"MUJERES DE NEGRO"
JOSEFINA ALDECOA



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

Berango



ALTZARIAK



*Suhalde- altzariak
doan izan daitezke*

DeLonghi

Elektrogailuak

- ELEKTRAGAILUETAN MARKA GUZTIAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

ERAKUSKETA: Legarre pabilioia, z/g / Gipuzkoa etorbidea ☎: 79 01 92



AMAIA ANTZOKIA
Urtarrilak 27, Ostirala
10,30etan
Sarrera 700 pta (Gazte txartelarekin 500)

maskarada MONSTRUO SAKRATUAK



ARRASATEKO UDALA
(KULTURA SAIA)



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



OPEL VECTRA BERRIA

merit



GUTXIK EMATEN DUTE HAINBESTE HAIN GUTXIREN TRUKE.

115 CVko 2.0i alemaniar batek adina, Opel injinerutza Alemaniar ospetsuak indartua. Zuk merezi bezalako ekipamendua: **Direkzio lagundua, pretentsoredun segurutasun uhalak, alboetako segurtasun-barrak, itxitura zentralizatua, leihoak isteko elektricoa, atzekaldeko jarlekuetan ere burua etzatekoa, antena elektrikoa...** ikusteko zein berba egiteko hainbeste emango dizu, ezin zara Opel Banatzailearengana probatzera etorri barik geratu. Izan ere, sekula ez duzu hain gutxiren truke hainbeste jaso.

OPEL VECTRA MERIT BERRIA. BERE PREZIOA MERITU HUTSA DA.

OPEL

Z U R E Z A I N G A U D E

**10^o
URTEURRENA**

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL BANATZAILE OFICIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.